

ZUZENBIDE ALBISTEAK

JARDUERA TXOSTENA

2023KO URTARRILA / IRAILA



Hitzaurrea

Lineako argitalpen soil honen bidez, Zuzenbide Fakultateko kideok (irakasleok, ikasleok eta administrazio eta zerbitzuetako langileok) gure bi campusetan (Bizkaikoan eta Gipuzkoakoan) egindako jarduera nahiz egitasmo akademiko eta sozialen berri emango dugu.

Ondo asko dakigu denborak baldintzatu egiten gaituela eta, halaber, gure espezializazio arloarekin edota gure zuzeneko interes pertsonal eta profesionalekin zerikusia duten jardueretan edota antolatzaile gisa zuzenean inplikatzeko gaituen horretan bakarrik parte hartzera mugatzen gaituela. Hori dela eta, pentsatu dugu baliagarria izan daitekeela aldizka informazio aldizkari bat argitaratzea. Tresna honekin, beraz, gure fakultatean urte osoan egiten dugun lan osagarria –irakaskuntzaz eta kudeaketaz gain– ikusgai egiten eta lan horri balioa ematen lagunduko dugu.

Lan mardula baita, bai eta gizarterako ekarpen handia ere, nahiz eta maiz oro har ezagutu ez eta, asko-askotan, kanpora nola helarazi jakin ez.

Proiektu hau bideragarria izan dadin, baina, zuen laguntza aktiboa behar dugu: behar zaituztegu. Besterik gabe, bidaietaz interesgarritzat jotzen duzun informazio guztia, bai aurretik ezagutzera ematekoa, jende guztiari irekitako jarduerak direnean (hala nola, hitzaldiak, jardunaldiak edo ikastaroak), bai a posteriori zabaltzekoa, behin jarduera amaitutakoan. Hala, asko eskertuko genizueke egindako jardueren argazkiak eta deskribapenak bidaltzea, baita, nahiz izanez gero, zuen balorazioak bidaltzea ere.

Eskerrik asko.

Alberto Empanza Sobejano
Zuzenbide Fakultateko dekanoa

HITZALDIAK, IKASTAROAK, JARDUNALDIAK ETA MINTEGIAK

3

SOLASALDI JURIDIKOAK: ZUZENBIDEA ETA GIZA GENOMA

Urtarrilaren 23an, Bizkaiko Campusean, Zuzenbideari eta Giza Genomari buruzko V. Solasaldi Juridikoak egin ziren, honako izenburu orokor honekin:

Ugalketa lagundua: erronka berriak seme-alabatasunaren zehaztapenean.

Zuzenbidea eta Giza Genomaren Katedra Sareak antolatu zuen, eta kanpoko hainbat unibertsitatetako hizlariak izan genituen gurekin; besteak beste: **Marisa Aizenberg doktorea** (Buenos Airesko Unibertsitatea, Argentina), **Esther Famós doktorea** (Pompeu Fabra Unibertsitatea), **Sergio Romeo doktorea** (Las Palmasko Unibertsitatea) eta **Itziar Alkorta Idiakez doktorea**, gure fakultateko katedradun eta irakaslea.

V Tertulias Jurídicas DyGH
"Reproducción asistida: Nuevos retos en la determinación de la filiación".
Dra. Marisa Aizenberg (UBA Argentina),
Dra. Esther Farnós (U- Pompeu Fabra) y
Dra. Itziar Alkorta (UPV/EHU)
Modera:
Dr. Prof. Dr. Sergio Romeo (U. de Las Palmas)
Coordinador: Mikel Recuero (UPV/EHU)

23 de enero de 16:30 a 18:30

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO XXVI. IKASTAROAK



Urtarriletik martxora bitartean, hainbat hitzaldi egin dira **Giza Eskubideen Ikastaroen XXVI. edizioaren** barruan. Urtero-urtero egiten dira gure fakultatean, **Juan Soroeta Liceras** irakasleak zuzenduta.

Urtarrilaren 26an, **Neuroeskubideen proposamena** hitzaldia eman zuen **Rafael F. De Asís Roig** jaunak, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Zuzenbidearen **Filosofiako katedraduna** bera.

Martxoaren 2an, **Alba Sotorra** zinemagilearen txanda izan zen. Honako film luze hauek egin ditu: *Francesca y el Amor* (2020), *Comandante Arian* (2018), *GameOver* (2015), *Miradas desveladas* (2008), *Qatar*, *TheRace* (2011) eta *El Retorno: la Vida después del ISIS* (2021). Azken horrek

izena eman zion bere hitzaldiari («Itzulera: ISISen ondorengo bizitza»).

Martxoaren 9an, Granadako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle **José Rafael Marín Aíshoni** buruz mintzatu zen:

Giza eskubideen baldintzazkotasuna EBren kanpo ekintzan.

Martxoaren 16an, **Lorena Calvo Mariscalen** txanda izan zen, Cadizko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakaslearena, zeinak honako gai hau izan baitzuen hizpide: ***Immigrazioa, giza eskubideak eta migrazio kontrolen kanporatzea Europaren hegoaldeko muga.***

Apirilaren 20an, **Nazima Nezrabik** eman zuen edizio honetako azken hitzaldia, **Giza eskubideak Afganistanen** (hizlaria Zuzenbidean eta Zientzia Politikoetan lizentziatuta dago, eta epailea da barne nahiz kanpo segurtasunaren kontrako delituetarako eta terrorismoko delituetarako Auzitegi Berezian). Donostiako San Telmo museoan egin zen, ikastaro hauetan ohikoa denez.



JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOAREN MINTEGI IRAUNKORRA

Urtero, gure fakultateko Justizia Sozialaren Aldeko Klinikak prestakuntza saio batzuk antolatzen ditu, hilean bat. Ikasleek gradu eta master amaierako lanetan baliatuko dituzten gaiei buruzkoak izaten dira, baita praktikaldian landuko dituzten gaiei buruzkoak ere. Saiook unibertsitateko kide guztientzat dira. Oraingo honetan, urtarriletik lau saio antolatu dira: hiru Donostian, eta azkena Bizkaian.

Lehenengoa urtarrilaren 26an egin zen, **Diskriminazioa lanbide feminizatuetan. Garbiketaren eta etxeko langileen sektorea** izenburupean. **Pilar Fernandez Artiachek** eman zuen, zeina Valentiako Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra den. Horrez gain, fakultate bereko Justizia Sozialaren Aldeko Klinika Juridikoko irakasle titularra ere bada.



Otsailaren 23an, **Mer Gómezek** hartu zuen hitza, UPV/EHUko doktoregaiak eta *intersex* aktibistak, honako gai honekin: **Intersexualitateak: giza eskubideen kontua.**



Martxoaren 23an, **Auzitan jardute estrategikoa eta gorroto delituak** izan zituen hizpide **Saúl Castro Fernández** Galiziako gazte jurista politologo eta aktibistak. Hizlaria giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide penalaren arloko abokatu espezialista dabil **The Guernica Centre for Internantional Justice** erakundean, eta, aurretik, **Women's Link** erakundean.

Azken saioa Bizkaian egin zen, apirilaren 27an, bi hitzaldirekin. Lehenik, **Itziar Altuzarra Alonsok** hartu zuen hitza (Zuzenbideko eta Nazioarteko Harremanetako Gradua egin zuen Deustuko Unibertsitatean, eta Soziologia Juridikoko Nazioarteko Masterra UPV/EHU(n), honako gai hau jorratzeko: **Elkarrekin sentitzea vs onespeneren eraikuntza juridikoa**.

Bigarren zatian, **Deo Szpiagak** hitz egin zuen (Zuzenbideko Gradua egin zuen Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitatean, eta Soziologia Juridikoko Nazioarteko Masterra egin zuen gero), eta bi hizlariak duela gutxi ikertu duten kasu praktiko bati heldu zion: **“Erantzun alternatiboak zigorraren kulturari: Bargastaken kasua”**.



Elkarrekin idatzi zuten **“Matxirulo, zure jaixa bukatu da. La militancia feminista de Oñati contra las agresiones”**, udalerrri horretako udalak eskatuta, eta, gaur egun, doktoratu aurreko bekadunak dira UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatean.



Klinikak, Kriminologiaren Euskal Institutuarekin batera, parte hartu zuen **Latinoamerikako, Karibeko, Ekuatore Gineako eta Espainiako Estatuko LGTBI+fobiaren aurkako Behatokiaren Nazioarteko I. Topaketan: Elkarrekin lanean: LGTBI+ giza eskubideak ziurtatu eta babesteko tresna berriak**. Donostian egin zen, martxoaren 24tik 26ra bitartean, hiriko udalbatza aretoan eta Aieteko jauregian.

Zuzenbidearen arloko beste profesional batzuen artean, Fakultateko **Idoia Igartua Laraudogoitia** irakaslea izan genuen, **Komunitateak, biktimak eta biktimarioak. Justizia sozialaren aldeko proiektu eraldatzaileak diseinatzea** hitzaldiarekin. Igartuak parte hartzen du Kriminologiaren Euskal Institutuaren Klinika Juridikoko Kontseiluan, eta Justizia Errestauratiboaren Teoria eta Praktika Laborategiko kidea da.

ZUZENBIDE ZIBILARI
BURUZKO JARDUNALDIEN I.
ZIKLOA: GIZARTE
BAZTERKETA EUSKADIN

Gizarte bazterketa Euskadin izenburuean, Leioako Campusean egin ziren Zuzenbide Zibilari buruzko Jardunaldien I. zikloko bi saioak. Eusko Jaurlaritzaren Pertsonai, Familiari eta Ondareari buruzko Ikerketa Taldeak antolatu zuen, eta **Jon Atxutegi Gutiérrez** Enpresa Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren Saileko irakasleak koordinatu zuen.

Lehenengoan, otsailaren 28an, **Joseba Zalakainen** eta **María Ibarrondoren** hitzak entzun genituen, euskaraz: **Gizarte bazterkeriaren errealitatea eta instituzioen erantzuna.**

Gizarte bazterketaren errealitateaz hitz egin zuten biek, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden estatistiketan eta estatistika horien inguruan egiten diren jarduketa instituzionaletan oinarrituta. Lehen mailako arreta sistemetan jarri zuten arreta (zentro horietan, lehenik eta behin, zaurgarritasun egoeran daudenei ematen zaie arreta).

Martxoaren 2an egin zen bigarren saioa, gaztelaniaz, eta **José María Escolástico** eta **Sonia Larrinaga** izan genituen hizlari, honako izenburu honen pean: **Arauzko jarduketak eta jarduketa instituzionalak etxegabetzeen aurrean.**

ZUZENBIDE ZIBILEKO
JARDUNALDIEN
I. ZIKLOA



**GIZARTE-
BAZTERKERIA
EUSKADIN**

Otsailak 28
**(Leioan, 2.1 Ikasgelan:
16:00-18:00)**

**Gizarte
bazterkeriaren
errealitatea eta
instituzioen
erantzuna**

Hizlariak:
**- Joseba Zalakain, Servicio de
Información e**

**Investigación Social
- Bizitegi Elkartea**

ANTOLATZAILEAK:

Grupo de Investigación Consolidado del Gobierno Vasco GIC.IT1445-22 sobre Persona, familia y patrimonio

**I.CICLO DE
JORNADAS DE
DERECHO CIVIL**

**EXCLUSIÓN
SOCIAL EN
EUSKADI**

2 de Marzo
**(Leioa, Aula 2.4:
17:00-19:00)**

**Actuaciones
normativas e
institucionales
frente al
Desahucio**

Ponentes:
**- José María Escolástico,
Subdirector
General de OAL**

**- Sonia Larrinaga, Abogada en
ejercicio**

LAGUNTZAILEAK:

Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saila

Escolástico gaur egun dauden mekanismo instituzionalak mintzatu zen: Bilboko Etxebizitzaren Udal Zerbitzuaz eta, zehazki, Etxegabetzei aurre egiteko Udal Zerbitzuaz.

Sonia Larrinagak, berriz, gaiari buruzko araudia aztertu zuen, bai eta COVID-19aren pandemiaren garaian etxegabetzeekin jazotakoa ere.

Exchange with Weihenstephan (Erasmus+) – Bavaria's 'Green Center' near Munich, Germany

Otsailaren 24an, Donostiako Zuzenbide Fakultatean, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Alemaniako Zientzia Aplikatueto Weihenstephan-Triesdorf Unibertsitatearen (eskuarki, "Unibertsitate Berdea" esaten zaio) arteko truke jardunaldi bat egin zen.

Tanja Barton Zuzenbideko doktore eta irakasleak zentro horren funtzionamendua eta bertan lantzen dituen programak azaldu zituen, eta unibertsitatearekin Erasmus hitzarmen bat ezartzeko aukeraren inguruan ere aritu zen.

Jarduera ingelesez.



MAIN CHALLENGES FOR THE PROTECTION OF MIGRANTS TODAY

Martxoaren 1ean, Zuzenbide Fakultateko **Soziologia Juridikoko Nazioarteko Masterrak** antolatuta (Oñatin dago egoitza), **Main challenges for the protection of migrants today** izeneko online hitzaldia eman zuen ingelesez **Felipe González Moralesek**, Migratzaileen Giza Eskubideen NBEko errelatore bereziak.




IISL TALKS
 2022-2023 International Master's Programme

Main challenges for the protection of migrants today: insights from the UN Special Rapporteur on the Human Rights of Migrants

1 March 2023, 12:00-13:00 (CET)



Felipe González Morales
 The United Nations Special Rapporteur on the Human Rights of Migrants



More info - master@iisj.es

SOZIETATEEN ZUZENBIDEAREN GAUR EGUNGO ERRONKEI BURUZKO JARDUNALDIA

Martxoaren 16an, Donostiako Fakultateko gradu aretoan, **Sozietateen zuzenbidearen gaur egungo erronkak** jardunaldia egin zen.

Honako hauek hartu zuten parte: **Alberto Emparanza Sobejanok**, Fakultateko dekanoa; **Rosa Ochoa-Errartek**, Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibilaren Saileko zuzendariak, bai eta Merkataritza Zuzenbideko titularrak diren kanpoko irakasle nabarmen batzuek ere. Zehazki, **Aránzazu Pérez Morientesek** (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea) eta **Jose Miguel Embid Irujak** (Valentziako Unibertsitatea). Fakultateko **Andrea Meijomil González** irakasleak koordinatu zuen jarduera.

BERGENGO (NORVEGIA) ZUZENBIDE UNIBERTSITATEA - 2023KO ESTRATEGIA

Ignacio Herrera Anchustegui Bergengo Unibertsitateko (Norvegia) irakaslea da, bai eta Lehiaren Zuzenbide eta Ekonomia Zentroko (BECCLE) nahiz Itsas Zentro Eolikoko (BOW) kidea ere. Bada, Donostiara etorri zen, bere hiria aurkeztera eta Erasmus trukea egiteko aukera planteatzera.

Halaber, Natur Baliabideen Zuzenbideko, Ingurumen Zuzenbideko eta Garapenaren Zuzenbideko Ikerketa Taldeko zuzendaria den heinean,

JORNADA SOBRE RETOS ACTUALES DEL DERECHO DE SOCIEDADES

Salón de Grados de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco
16 de marzo de 2023

10:00h. Presentación

Rosa Ochoa-Errarte Goikoetxea
Directora del Departamento de Derecho de la Empresa y Derecho Civil
Alberto Emparanza Sobejano
Decano de la Facultad de Derecho

10:15h. "Incidencia de la digitalización en la actividad de las sociedades de capital"

Aránzazu Pérez Moriones
Profesora Titular de Derecho Mercantil de la Universidad Pública de Navarra

11:00 h. "El gobierno sostenible de las sociedades de capital"

Javier Megias López
Profesor Titular de Derecho Mercantil de la Universidad Complutense de Madrid.

11:45 h. "La regulación del gobierno corporativo: entre el Derecho firme y el soft Law"

Jose Miguel Embid Irujo
Catedrático de Derecho Mercantil de la Universidad de Valencia.

12:00 h. Coloquio

12:45 h. Clausura

Organizado por el Grupo de Investigación Tendencia actuales del Derecho Mercantil en la era de la digitalización (TI1765-22) y el Departamento de Derecho de la Empresa y Derecho Civil
Coordinación: Andrea Meijomil González, Prof. Dra. Derecho Mercantil, Facultad de Derecho

Bergengo2023-2030eko estrategiaren erronkak izeneko hitzaldia eman zigun, energia krisia aztertu eta Norvegiak energia krisiari aurre nola egiten dion azaltzeko.



PERTSONA ZAURGARRIEN BABES PENALARI BURUZKO NAZIOARTEKO JARDUNALDIA

Martxoaren 21ean, zaurgarritutako pertsonen babes penalari buruzko jardunaldi bat egin zen Leioako Zuzenbide Fakultatean, **Ana I. Pérez Machio** eta **Norberto J. de la Mata** irakasleek zuzenduta eta **Idoia Igartua Laraudogoitia** eta **Leyre Hernández Díaz** irakasleek koordinatuta.

Askotariko gaiak jorratu zituzten; hala nola, hauek: **Erruduntasunaren krisia eta zaurgarritasunaren ondoriozko erruduntasuna**, **Marcelo Roquert**, Mar del Platako Unibertsitateko irakaslea.


Miseriaren Zuzenbide Penala eta Zuzenbide Penalaren miseria, **Antonio Cavalkiere**, Napoliko Unibertsitateko irakaslea.

Pertsonen salerosketaren eta trafikoaren aurkako borroka, **Maitena Poelemans de Lara**, Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko irakaslea.

Langileen babes penala, **Alessandro Melchionda**, Trentoko Unibertsitateko irakaslea.


Genero indarkeria. Hurbilketa bat Latinoamerikatik, **Isabella Luar Dossantos**, Brasilgo Movimento Mulheres (MM/RN) mugimenduko presidentea.

Homofobiaren inguruko eztabaida penala, **Luigi Foffani**, Modenako eta Reggio nell'Emiliako Unibertsitateko irakaslea.



Apirilaren 30etik aurrera, **Personas vulnerables y tutela penal** izeneko lan kolektiboa erosi daiteke (aurten argitaratu dute, Aranzadi argitaletxearekin).

Apirilak 21.
GORROTO DELITUEI BURUZKO MINTEGIA.
JURISPRUDENTZIAREN ORAINGO EGOERA
(generoaren inguruabar astungarriari arreta berezia ipinita).



Jarduera hau Leioako Zuzenbide Fakultatean egin zen, apirilaren 21ean, UPV/EHUren Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrak antolatuta. Bada, gure fakultateko irakasle hauek osatzen dute Zientzia Batzordea: **Jon Mirena Landa** (zuz.), **Enara Garro** (koord.), **Mikel Anderrez**, **Iñigo Gordon**, **Bertha Gaztelumendi** eta **Uxue Martín**.

Hona hemen gaiak eta hizlariak:

ZKaren 22.4 artikuluko generoaren inguruabar astungarria: jurisprudentziaren analisisa. Hizlariak: **Miguel Angel Boldova doktore eta irakaslea**, Zaragozako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko katedraduna. Eta **Patricia Faraldo doktore eta irakaslea**, Coruñaeko Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko katedraduna.

Gorrotu delituak eta adierazpen askatasuna: gogoeta kritikoak, jurisprudentzian oinarrituta. **Jorge Correcher**, Valentziako Unibertsitatean kontratatutako doktore eta irakaslea.

Gorrotu delituak, EAeko Justizia Administrazioetik. Hizlariak: **Ana Laura Núñez Portillo**, Bizkaiko Probintzia Fiskaltzako gorrotu delituen eta diskriminazioaren aurkako fiskal delegatua, eta **Urko Giménez Ortiz de Zarate**, Bilboko 7. instrukzio epaitegiko epailea.

EUSKADIKO GORROTO GERTAKARIEI BURUZKO 2022KO TXOSTENA

ERREGISTROKO KALIFIKAZIOA ETA KONTSUMITZAILEEN DEFENTSA

Zuzenbide Fakultatea. Leioako Campusa. 2023ko apirilak 24



Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibilaren Sailak antolatu zuen egitasmoa, Erregistratzaileen Elkargoarekin lankidetzan.

Hizlari aritu ziren **Celia Mencía Criado**, jabetzaren erregistratzailea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Ikasketen Zentroko zuzendaria, eta **Clara Isabel Asua**, UPV/EHUko Zuzenbide Zibileko katedraduna gure fakultatean.

ZUZENBIDE PRIBATUAREN ORAINGO GAIEI BURUZKO HITZALDIEN IV. ZIKLOA

13

Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibilaren Sailak antolatu zuen ekimena –zehazki, *Pertsonai, Familiari eta Ondareari* buruzko Ikerketa Taldeak (MICIN /AEI 2020-119816GB100 I+G+b proiektua)–, eta bi hitzaldi eman ziren Donostiako Zuzenbide Fakultateko gradu aretoan.

ONLINE KONTRATAZIOA: EUROPAKO ETA ESPAINIAKO NOBEDADEAK

Lehenengo hitzaldia apirilaren 28an egin zen, eta **Esther Arroyo Amayuelasek** hartu zuen hitza. Bartzelonako Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko katedraduna da, eta Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren Jean Monnet katedra eskuratu zuen unibertsitate berean.

CONFERENCIA

IV CICLO DE CONFERENCIAS SOBRE CUESTIONES ACTUALES DE DERECHO PRIVADO" La contratación online: novedades a nivel europeo y español"

ESTHER ARROYO I AMAYUELAS,

Catedrática de Derecho Civil de la Universidad de Barcelona y Titular de la Cátedra Jean Monnet de Derecho Privado de la UE en la misma Universidad

ORGANIZA:

DEPARTAMENTO DE DERECHO DE LA EMPRESA Y DERECHO CIVIL
GRUPO DE INVESTIGACIÓN CONSOLIDADO GIC IT1445-22 PERSONA, FAMILIA Y PATRIMONIO
PROYECTO I+D+i MICIN/AEI 2020-119816GB-100

Público al que va dirigida la conferencia :

Profesorado, alumnado de tercer ciclo, de máster, de grado, profesionales, etc.

Día: 28 de abril 2023

Hora: 10:30- 11:30

Lugar: Salón de Grados David Kato, Facultad de Derecho de la UPV/EHU
(Paseo Manuel de Lardizabal 2, 20018 San Sebastián)

MICA ARAUDIA ETA KRIPTOAKTIBOEN KONTRATAZIOA

Maiatzak 4 Donostiako Campusa

Valladolideko Unibertsitateko Merkataritza Zuzenbideko katedradun **Marina Echebarría Sáenz** izan zen hizlaria zikloko bigarren hitzaldian, maiatzaren 4an. Bada, kriptokoaktibo eta "stablecoins" deiturikoen merkatuak eta zerbitzuak arautzen dituen araudi europarra jorratu zuen bertan (araudia duela gutxi onetsi du Europako Parlamentuak, apirilaren 20an, eta datorren urtearen erdialdean jarriko da indarrean: mundu mailan, mota horretako lehenengo araudia da).

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ZUZENBIDE FAKULTATEA
FACULTAD DE DERECHO

MINISTERIO DE CIENCIA E INNOVACIÓN
UNIVERSIDAD DE VALLADOLID

CONFERENCIA

IV CICLO DE CONFERENCIAS SOBRE CUESTIONES ACTUALES DE DERECHO PRIVADO
"El Reglamento MiCA y la contratación de criptoactivos"

MARINA ECHEBARRÍA SÁENZ,
Catedrática de Derecho Mercantil de la Universidad de Valladolid

ORGANIZA:
DEPARTAMENTO DE DERECHO DE LA EMPRESA Y DERECHO CIVIL
GRUPO DE INVESTIGACIÓN CONSOLIDADO GIC IT1445-22 PERSONA, FAMILIA Y PATRIMONIO
PROYECTO I+D+I MICIN/AEI2020-119816GB-I00

Público al que va dirigida la conferencia:
Profesorado, alumnado de tercer ciclo, de máster, de grado, profesionales, etc.

Día: 4 de mayo de 2023
Hora: 11:00
Lugar: Salón de Grados David Kato, Facultad de Derecho de la UPV/EHU
(Paseo Manuel de Lardizabal 2, 20018 San Sebastián)

PABLO IBARREN KASUA. BIDEZKO EPAIKETA.



Apirilaren 17an, hedabideetan interes handia piztu zuen hitzaldi bat egin zen Donostiako Fakultateko gradu aretoan Pablo Manuel Ibarren kasuari buruz: heriotza zigorra ezarri zioten 2000n Estatu Batuetan, Miamin 1994an gertatu zen krimen hirukoitz bat leporatuta. Ibarrek beti esan izan du errugabea dela. 2019tik, biziarteko espetxealdia betetzen ari da.

Bada, Ibarren abokatuak hitz egin zuen, **Joe Nascimentok**, eta, kasuari buruzko informazio esanguratsuena emateaz gainera, kasuaren egoera eta etorkizunera begirako perspektibak azaldu zituen. Handik hiru egunera, Floridako Apelazio Auzitegiaren erabakia jakin zen, defentsak zigorra atzera botatzeko eta beste epaiketa bat egiteko egindako eskaerari buruzkoa. Bi eskaerak ezetsi egin zituen auzitegi horrek.

Fakultateko **Miren Odriozola Gurrutxaga** eta **Leire Berasaluze Gerrikagoitia** irakasleek antolatu zuten ekitaldia.

ITSAS ZUZENBIDEARI BURUZKO XIV. HITZALDI ZIKLOA (BILBO-LEIOA)

Bizkaiko Campusa Apirilak 28



Hizlariak:

Espanian itsasoko eta portuetako legedia aldatzeko proiektua: nobedade nabarmenenak

Iñaki Zurutuza Arigita, Merkataritza Zuzenbideko irakasle titularra (Nafarroako Unibertsitatea).

Il concetto di aeromobile: tra APR e nuove tecnologie

Umberto La Torre, Italiako Catanzaroko Unibertsitateko Nabigazio Zuzenbideko katedraduna.

Argentinako Nabigazioari buruzko Legearen egokitzapenak: abangoardia, eguneraketa eta proiektuak

Eduardo Adragna, Buenos Airesko Unibertsitateko irakaslea eta abokatua. Argentina.

Teknologia berriak eta sailkapen sozietateak ziurtatzeko prozesuak

Nathaly Marisol Magaña Cortez, Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea.

Garraio aseguruak digitalizazioaren ondorioz dituzten erroka berriak

Abel B. Veiga Copo, Merkataritza Zuzenbideko irakasle arrunta. Madrilgo Comillasko Unibertsitate Pontifikala.

Aireko bidaiarientzako diru konpentsazioa, ontziratzea ukatzen zaienean, hegaldia bertan bera geratzen denean eta hegaldia atzerapen handiz ateratzen denean, EBJAren duela gutxiko jurisprudenzian oinarrituta.

Eliseo Sierra Noguero, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Merkataritza Zuzenbideko irakasle agregatua.

Cabo Verdeko Itsas eta Portu Zuzenbidearen erreformaren erroka nagusiak

Armando Lopes Enapor, Cabo Verdeko portuak.

Perun egindako erreforma aeronautikoen abantailak eta desabantailak.

Miguel Mena, Abokatua. Peru.

Digitalizazioaren eta globalizazioaren ondorioz Itsas eta Garraio Zuzenbideei egindako erreformak izenburuaren pean garatu zen Itsas Zuzenbideari buruzko Bilbo-Leioako hamalaugarren hitzaldi zikloa. **Jose Manuel M. Osante** Zuzenbide Fakultateko Merkataritza Zuzenbideko katedradun eta Fakultateko Bizkaiko Ataleko koordinatzaileak gidatu zuen zikloa.

Catanzaroko Unibertsitatearekin lankidetzan antolatu zen **jarduera**.


DAUDEN LANBIDE IRTEEREI BURUZKO JARDUNALDIA



Maiatzaren 2an, *Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari* buruzko jardunaldi bat egin zen Donostiako Campusean. Jarduera, funtsean, Zuzenbideko Gradu ikasleei zuzendu zitzaien. **Xabier Iriondo** Eusko Jaurlaritzaren Aholkularitza Juridikoko arduradunak hartu zuen hitza, eta alor honetan dauden lanbide irteerei buruz mintzatu zitzaien ikasleei.

17

ZUZENBIDEAREN ETA GIZA GENOMAREN XXIX. BILTZARRA



Teknozientzia Berriei aplikatutako Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoen Ikerketa Taldeak (GI-CISJANT, UPV/EHU), Zuzenbidea eta Giza Genomaren Katedra Sareak eta Zuzenbide Fakultateak antolatuta, **Giza Genomaren XXIX. Biltzarra** egin zen maiatzaren 4an eta 5ean, Bilbon. Gure fakultateko **Pilar Nicolás** eta **Iñigo de Beriain** irakasleek zuzendu zuten, eta **Carlos Trincado** irakasleak koordinatu, honako egitarau interesgarri honekin:

Pluralismoa, debateak eta desadostasunak bioetikan eta biozuzenbidean; Marina Gascón Abellán, Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna.

Dibulgazio zientifikoa, informazioa eta desinformazioa

Moderatzailea: **Emilio José Armaza Armaza**, Ramón y Cajal ikertzailea eta Zuzenbide Penaleko irakaslea Deustuko Unibertsitatean.

Informazioa eta desinformazioa. Oraingo egoeraren azterketa kritikoa. Raúl Magallón Rosa. Carlos III.a Unibertsitateko (UC3M) Komunikazio Saileko irakaslea.

Organoideak eta gizakien lagin biologikoetan oinarritutako bestelako eredu esperimentalak Moderatzailea: **Aliuska Duardo-Sánchez** doktoratu osteko ikertzailea: GI-CISJANT, UPV/EHU.

Gizakien lagin biologikoetan oinarritutako eredu esperimentalak. Zientziaren egoera. Gabriel Capellá. IDIBELL-Bellvitgeko Ikerketa Biomedikoko Institutuko zuzendari nagusia.

Gizakien lagin biologikoetan oinarritutako eredu esperimentalak Carlos III.a Osasun Zentroaren biobankuen eta bioereduen plataforman: biomedikuntzaren eremuan zerbitzu ematea. Nuria Montserrat Pulido. ISCIII_BB plataformaren koordinatzailea.

Organoideen araubide juridikoa: gizakien lagin biologikoetan oinarritutako eredu esperimentalak. Sergio Romeo Malanda. Zuzenbide Penaleko irakasle titularra (ULPGC).

Jabetza intelektual eta industrialari buruzko kontuak. Mercedes Curto Polo. Merkataritza Zuzenbideko katedraduna (UNED).

Biomedikuntzaren eremuan urrutitik egindako jarduketak

Moderatzailea: **Elena Atienza Macías**, Deustuko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakaslea.

Telemedikuntza: Mavericksen eta Marvelen artean. Jaime del Barrio Seoane. Osasunaren eta bizi zientzien arloko *senior advisor*-a (EY España).

E-healthy M-health: dilema etikolegalak eta etorkizuneko erronkak. Joaquín Cayón de las Cuevas. Osasun Zuzenbidearen eta Bioetikaren arloko Ikerketa Taldeko zuzendaria. IDIVAL, Kantabriako Unibertsitatea.

Ikerketa biomedikoan parte hartzeko baimena, teknologia berrien bidez emandakoa. Antonio Jesús Quesada Navidad. Carlos III.a Ikerketa Kardiobaskularren Zentro Nazionalako (CNIC) koordinatzailea.

Bi komunikazio mahai egin ziren, **Mikel Recuero Linaresen** (doktoratu aurreko ikertzailea, GI-CISJANT, UPV/EHU) eta **Aníbal Monasterio Astobizaren** (doktorego ondoko ikertzailea, UPV/EHU) eskutik, eta **Carlos María Romeo Casabona saria** eman zioten komunikazio onenari. Amaitzeko, Komunikazioen Auzitegiko presidente **Concepción Aldama Baquedanok** (Zaragozako Probintzia Auzitegiko magistratua) hitzaldia eman zuen. Halaber, **Carlos María Romeo Casabonak** (Zuzenbide Penaleko katedradun emeritua, UPV/EHU) eta **Pilar Nicolás Jiménezek** (GI-CISJANTeko doktore ikertzaile iraunkorra, UPV/EHU) hartu zuten hitza.

Maiatzaren 4tik ekainaren 22ra, honako ikastaro honen V. edizioa:

**EUSKADIKO ZUZENBIDE ZIBILAREN PRAKTIKA:
FAMILIAREN, OINORDETZEN ETA ZERGEN ARLOKO ALDERDIAK.**

Gure fakultateko Zuzenbide Zibileko **Gorka Galicia Aizpurua** katedradunak zuzenduta, unibertsitate hedakuntzako ikastaro honen beste edizio bat egin zen, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoarekin lankidetzan (elkargoak Donostian dauka egoitza). Prestakuntza abokatuei eta prokuradorei nahiz Zuzenbideko beste profesional batzuei zuzenduta egon zen, baita Abokatutza Masterreko ikasleei ere.



Ikastaroak lau gai bloke zeuzkan: Lehenengoa gai orokorrei buruzkoa izan zen, eta gure fakultateko **Juan José Alvarez Rubio** Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradunak eta **Francisco de Borja Iriarte Ángel** Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko magistratuak gidatu zuten.



Bigarren blokeak Familia Zuzenbideari heldu zion, eta gure fakultateko **Sandra Castellanos Cámara** eta **Iraintzu Beriain Flores** doktore eta irakasleek zuzendu zuten.

Hirugarrena Oinordetzen Zuzenbideari buruzkoa izan zen, eta gure fakultateko Zuzenbide Zibileko hainbat adituk hartu zuten parte; hala nola, hauek: **Gorka Galicia Aizpurua** katedradunak (ikastaroa zuzentzen du), **Clara Isabel Asúa González** katedradunak, **Mikel Karrera Egialde** irakasle titular eta katedradun egiaztatuak eta **Leire Imaz Zubiaur** Zuzenbideko doktore eta irakasle agregatuak. Bestalde, parte hartu zuten **Carlos Gortazar Lorente** Cuatrecasaseko abokatuak eta **Manuel Cánovas Sánchez** notarioak.

Amaitzeko, Euskadiko Zuzenbide Zibilari eta Fiskalitateari buruz aritzeko, Zuzenbidean doktorea den **Marco Antonio Rodrigo Ruiz** abokatuak hartu zuen hitza.

2023ko maiatzak 18

KRIMINOLOGIA, GENEROA ETA ZIGOR SISTEMA

Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa Doktoregoa eman zion Elena Larrauri Pijoan irakasleari, eta, horren harira, mintegi hau antolatu zuen UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak, Bilboko Bizkaia aretoan, honako egitarau honekin:

Inaugurazioa, Enara Garro UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko irakasle titular eta UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedraren koordinatzaileak gidatuta.

1. MAHAIA: ZIGOR ERANTZUNAK ETA GIZA ESKUBIDEAK

Moderatzailea: **Jon Mirena Landa doktorea**, UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko katedraduna, eta katedrako zuzendaria.

Zigor populismoa eta nola egin horri aurre: ikerketaren rola

Sonja Snacken doktorea, Kriminologiako, Penologiako eta Zuzenbidearen Soziologiako irakaslea. Vrije Unibertsitatea (Brusela).

Espetxeei buruzko nazioarteko arauen bilakaera eta eguneraketa

Dirk van Zyl Smit doktorea, Nazioarteko Zuzenbide Konparatu eta Penaleko irakasle emeritua. Nottinghameko Unibertsitatea.

Gizarteratzea eta arriskugarritasuna,

Jose Luis de la Cuesta doktorea, UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko katedraduna. UPV/EHUren Kriminologiaren Euskal Institutuko zuzendaria.

Debatea, honako hauekin:

Jose M. Cid Moliné doktorea, Zuzenbide Penaleko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

Margarita Martínez Escamilla doktorea, Zuzenbide Penaleko katedraduna. Unibertsitate Konplutentsea.

Pilar Otero González, Zuzenbide Penaleko katedraduna. Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea.

2. MAHAIA: GENEROA ETA ZIGOR SISTEMA

Moderatzailea: **Miren Ortubay**, UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko irakasle titularra. *María de Maeztu Forum Feminista*.

Zuzenbideak generoa dauka: bilakaera baten lerroak

Encarna Bodelón, Zuzenbidearen Filosofiako irakasle titularra. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Kataluniako Generalitateko Ikasketa eta Prestakuntza Zentroko zuzendaria.

Pentsamendu feminista Zuzenbide Penalera sartzeko zailtasunak

Patricia Lorenzo doktorea, Zuzenbide Penaleko katedraduna. Malagako Unibertsitatea.

Zigor feminismoa genero patriarkalaren ordenaren krisi garaietan

Marisa Maqueda Abreu doktorea, Zuzenbide Penaleko katedraduna.

Granadako Unibertsitatea

Debatea, honako hauekin:

Adela Asua Batarrita doktorea, UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko katedradun emeritua.

Mercedes Alonso Álamo doktorea, Zuzenbide Penaleko katedraduna. Valladolideko Unibertsitatea.

Mercedes Pérez Manzano doktorea, Zuzenbide Penaleko katedraduna.

Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.



21

Maiatzak 19 BABES PENALA SEXU ASKATASUNEAN 10/2022 Lege Organikoa ezbaian

UPV/EHUK Larrauri irakaslea Honoris Causa doktore izendatzearen harira, era berean, 10/2022 Lege Organikoa polemikoari

buruzko mahai ingurua egin zen. "Sexu askatasunaren babes integrala" babesten duen lege berri horren helburua da "zigorgabetasunik ez" egoteko eta emakumeen sexu askatasunaren aurkako egoerak abusutzat ez hartzeko eskaerei erantzutea. "La manada" kasuaren lehenengo epaia eta *Me Too* mugimendua izan ziren bestelako ikuspegi bati heltzeko eragileak. Baina nola borrokatu zigorgabetasunaren eta delitu jakin batzuekiko axolagabetasunaren kontra? Praktika horiek onartezinak direla zabalduz gizartean? Salaketa gehiagorekin? Biktimentzako laguntza espezifikoekin? Zigor handiagoekin?

Besteak beste, galdera horiek jorratu zituzten mahai inguruan, kasu jakin batzuetan zigorra jaitsi izanagatik sortutako eztabaidaren harira, justizia sistemak etengabe dituen erronkei buruz aritzeko: gizartean errotutako kontzeptzio kultural batzuek eragotzi egiten dute eskubideek eremu honetan aurrera egitea.

ehugune

EAEKO ALIZITEGI NAGUSIA TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAIS VASCO

denon artean gogoetan espacio abierto de reflexión rethinking together

»» MESA REDONDA:
**PROTECCIÓN PENAL DE LA LIBERTAD SEXUAL:
LA LEY ORGÁNICA 10/2022 A DEBATE**

Elena Larrauri Pijoan
Catedrática de Derecho Penal y Criminología en la Universidad Pompeu Fabra. Doctora honoris causa UPV/EHU.

Adela Asua Batarrita
Ex miembro del Consejo de Estado. Ex vicepresidenta del TC y Catedrática emérita de derecho penal UPV/EHU.

Iñaki Subijana Zunzunegui
Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

19/05/2023 BIZKAIA ARETOA – SALA BAROJA. BILBAO 11:00h-13:00h

Mahai ingurua Bilbon egin zen (Bizkaia aretoan), eta **Enara Garrok** moderatu zuen (UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko irakasle titularra da, eta Zuzenbide Publikoko Saileko zuzendaria). Bada, honako hauek hartu zuten parte: **Elena Larraurik**, **Adela Asuak** eta **Iñaki Subijanak**.

Maiatzak 18 (Leioa) eta maiatzak 19 (Donostia)

22

FORU TRADIZIOA ETA ALDAKETA KONSTITUZIONALA: EUSKAL LURRALDEAK TESTUINGURUAN.

Zuzenbide Fakultateko irakasle Jon Arrietari omenaldia egiteko jardunaldiak



Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko Juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Historia Saileko irakasle batzuek antolatu zituzten jardunaldiok, omenaldi akademikoa eta aitortza publikoa egiteko Jon Arrieta Alberdi jurista eta historialari katedradun eibartarraren ibilbide profesionalari, duela gutxi hartu baitu erretiroa. Honako hauek sustatu eta koordinatu zuten egitasmoa: Carlos Garriga Acostak, Rosa Ayerbe Iribarrek, Javier García Martínek, Imanol Merino Malillosek eta Camilla de Freitas Macedok.

Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Gipuzkoako eta Bizkaiko Campusetako Errektoreordetzek eta TRANSIDER ikerketa proiektuak (PID2021-128509NB-C21) laguntzak eman zituzten, eta UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateak lagundu egin zuen.

Maiatzaren 18an hasi ziren jardunaldiak, Leioako Campuseko Liburutegi Nagusiko batzar aretoan, **Alberto López Basaguren doktoreak** (Saileko oraingo zuzendaria eta Konstituzio Zuzenbideko katedraduna) eta **José Manuel Martín Osante doktoreak** (Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Ataleko koordinatzailea eta Merkataritza Zuzenbideko katedraduna) gidatuta.

Maiatzak 18, osteguna.

23

Liburutegi Nagusiko batzar aretoa. Leioako Campusa.

Inaugurazio debatea. *Historiaren eta konstituzioaren artean: Zuzenbidearen historia, unibertsitate testuinguruan.*

Manuel Á. Bermejo Castrillo, Zuzenbidearen Historiaren Espainiako Sozietateko presidentea eta Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako katedraduna Carlos III.a Unibertsitatean; **Remedios Morán Martín**, Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako katedraduna Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalan; **Esperanza Osaba García**, UPV/EHUko Erromatar Zuzenbideko katedraduna, eta, moderatzaile lanetan, **Adoración Castro Jover**, UPV/EHUko Estatuaren Eliza Zuzenbideko katedraduna.



Lehenengo zatia. *Aragoiko Koroa monarkia hispanikoan.*

Moderatzailea: **Manuel Torres Aguilar**, *Espainiako Zuzenbidearen Historiaren Urtekariko* zuzendaria eta Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako katedraduna Kordobako Unibertsitatean.

Aragoiko Koroaren eraketa politikoa, **Tomás de Montagut Estragué**, Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako katedraduna Pompeu Fabra Unibertsitatean.

Botere tentsioa eta eraikuntza instituzionala Aragoiko Koroan (XVI-XVII. mendeak), **Teresa Canet Aparisi**,

Valentziako Unibertsitateko irakasle titularra.

Gobernu borboitarren planta berria, Cristóbal Crespí de Valldauraren "Observaciones Illustratae" oharren arabera, **Francisco Javier Palo Gil**, Valentziako Unibertsitateko Zuzenbidearen Historiako irakasle titularra eta bertako dekanoa.

Gorteen foruak Sobrarbeko foruen aurrean: konstituzio tentsioa Aragoi (1437-1727), **Jesús Morales Arrizabalaga**, Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiaren irakasle titularra Zaragozako Unibertsitatean.

Bigarren zatia. *Euskal lurraldeak eta Nafarroa.*

Moderatzailea: **Jesús Astigarraga Goenaga**, Ekonomia Aplikatuko katedraduna Zaragozako Unibertsitatean.

Milizia gipuzkoarra konstituzio garaietan, **Rosa Ayerbe Iribar**, Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako irakasle titularra UPV/EHU.

"Benetako adimena". Bizkaiko letraduak eta foruaren interpretazioa, erregimen zaharrean (XVI-XVIII. mendeak), **Imanol Merino Malillos**, Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako irakasle laguntzailea UPV/EHU.

Jurisdikzioen eta lurren artean: gatazkak ondasun erkideen gaineko zergaren eta aprobetxamenduaren artean, Aralar mendilerroan (XVII. mendea), **Camilla de Freitas Macedo**, Historia Saileko doktorego ondoko ikertzailea Hannoverko Leibniz Unibertsitatean.

Kaparetasun unibertsala XVIII. mendean, **Javier García Martín**, Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako irakasle titularra UPV/EHU.

1869ko Konstituzioa Nafarroako foruekin alderatuta, foru konstituzioa aldarrikatze aldera (1873), **Roldán Jimeno Aranguren**, Zuzenbidearen Historiako irakasle titularra Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Maiatzak 19, ostirala, Donostia.

Bigarren egunean, Carlos Santamaria Zentroko auditoriuma izan zen agertokia, Gipuzkoako Campusean, eta Rosa Mentxaka Elexpek eman zion hasiera jardunaldiari (dekanoa izan zen Zuzenbide Fakultatean, eta UPV/EHUko Eliza Zuzenbideko eta Erromatar Zuzenbideko katedraduna da).

Lehenengo zatia. **Monarkia katolikoan batzeko moduak.**

Moderatzailea: **Pablo Fernández Albaladejo**, Historia Modernoko katedraduna Madrileko Unibertsitate Autonomoan.

Lurraldeen, jurisdikzioen eta pertsonen batasunak. Pedro Cardim, Historiako irakasle elkartua Lisboako Unibertsitate Berrian.

Konkista eta Errekonkista. Erreinuaren memoria partikularra eta Espainiaren memoria partekatua XVI. eta XVII. mendeetan. Xavier Gil Puyol, Historia Modernoko katedraduna Bartzelonako Unibertsitatean.

Erresumen batasunen garrantzirik eza itsas mundurako. Margarita Serna Vallejo, Zuzenbidearen Historiako katedraduna Kantabriako Unibertsitatean.

Monarkia katolikoaren "planta berria": arazoak eta eztabaidak. Carlos Garriga Acosta, Zuzenbidearen eta Erakundeen Historiako katedraduna UPV/EHU.

Bigarren zatia. **Historia eta konstituzioa: eskubide historikoak**

Moderatzailea: **Gregorio Monreal Zia**, Zuzenbidearen Historiako katedraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPV/EHUko errektorea izan zen 1981etik 1985era).

Nazioa inperioetan: zenbait hipotesi. Josep Maria Fradera Barceló, Historiako katedraduna Pompeu Fabra Unibertsitatean.

Bezpera konstituzionalak: eskubide tradizionalak Portugalgo monarkian. Andréa Slemian, Historiako irakaslea São Pauloko Unibertsitate Federalean.

Eskubide historikoak eta konstituzioa Espainia garaikidean. José María Portillo Valdés, Historia Garaikideko katedraduna UPV/EHU.

Jardunaldiak amaitzeko, debate bat egin zuten, **Zuzenbidearen historiaren eta eskubide historikoen artean** izenburupean, Carlos Garriga moderatzaileak lagunduta. Hala, parte hartu zuten Jon Arrietak berak eta, birtualki, **Miguel Herrero y Rodríguez de Miñón**ek (Estatu Kontseiluko aholkulari iraunkorra), **Rosa Lluch Bramonek** (Erdi Aroaren Historiako irakasle titularra) eta **Aquilino Iglesia Ferreirósek** (Zuzenbidearen Historiako katedraduna Bartzelonako Unibertsitate Nagusian).



Zergadunaren bermeak, zerga ordenamenduaren konfigurazioan eta aplikazioan: oinarritzko eskubideen gutuna eta Europar Batasuneko Zuzenbidearen oinarri orokorrak

Jardunaldi hau Donostiako Carlos Santamaria auditoriumean egin zen, eta helburu izan zuen aztertzea zer berme dauzkaten zergadunek zerga ordenamenduaren konfigurazioan eta aplikazioan, oinarritzko eskubideen gutunean eta Europar Batasuneko Zuzenbidearen oinarri orokorrean oinarrituta, ikuspegi hirukoitz batekin:

- Segurtasun juridikoa, konfiantza legitimoaren babesa eta administrazio ona.
- Zuzenbidearen abusua eta Zerga Zuzenbide zehatzailea.
- Europar Batasuneko Zuzenbidea urratzeagatik zerga egintzak deuseztatzea.



Aitor Orena Domínguez (Finantza eta Zerga Zuzenbideko irakasle titularra UPV/EHU) eta **José Manuel Almuđi Cidek** (Finantza eta Zerga Zuzenbideko irakasle titularra Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean) antolatu zuten jarduera. Biak dira Aholkulari Fiskalen Espainiako Elkarteko (**AEDAF**) kide, eta erakunde horrek, **Petronorrekin** batera, jardunaldi hau egiten lagundu du. **Alberto Emparanza Sobejano** UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko dekanook gidatu zituen hala inaugurazioa, nola ongietorria.

1. mahaia: **Europar Batasuneko Zuzenbidearen oinarri orokorrek nazioko zerga ordenamenduaren konfigurazioan eta aplikazioan duten eragina: segurtasun juridikoa, konfiantza legitimoaren babesa eta administrazio ona.** Moderatzailea: **Itziar Agirre Berriotxo**a, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomiako sailburuordea. Hizlariak: **José Manuel Almuđi Cid** eta **Aitor Orena Domínguez**.

2. mahaia: **Zuzenbidearen abusua eta Zerga Zuzenbide zehatzailea, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arabera.** Moderatzailea: **Miguel Ángel Martínez Lago**, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Finantza eta Zerga Zuzenbideko katedraduna eta AEDAFeko kidea. Hizlariak: batetik, **Jesús Cudero Blas**, Auzitegi Goreneko magistratua (eszedentzian), Pérez-Llorcako *of counsela*, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Finantza eta Zerga Zuzenbideko irakasle elkartua eta AEDAFeko kidea, eta, bestetik, **Francisco José Navarro Sanchis**, Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien salako magistratua.

3. mahaia: **Zergadunen oinarritzko eskubideen maila anitzeko babesa eta Europar Batasuneko Zuzenbidea urratzeagatik zerga egintzak deuseztatzearen ondorioak.** Moderatzailea: **Iratxe Celaya Acordarrementeria**, Uría Menéndezeko kidea eta AEDAFeko kidea. Hizlariak: batetik, **Diego Marín-Barnuevo Fabo**, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Finantza eta Zerga Zuzenbideko katedraduna, Pérez-Llorcako *of counsela* eta AEDAFeko kidea. Bestetik, **Joaquín Huelin Martínez de Velasco**, Auzitegi Goreneko magistratua (eszedentzian), Cuatrecasasen bazkidea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Finantza eta Zerga Zuzenbideko irakasle elkartua eta AEDAFeko kidea.

2023ko ekainak 15 eta 16

Auzitegi zientziak eta kriminalistika: krimenaren eszenatik laborategira.

Kriminologiaren Euskal Institutuko Isabel Germán Mancebo irakaslearen eta UPV/EHUko Francisco Etxeberria Gabilondo irakaslearen zuzendaritzapean, udako ikastaro hau egin zen Miramar jauregian. Aurrez aurre nahiz telematikoki egin ahal izan zen, honako egitarau honekin:

2023ko ekainak 15

Erakunde inaugurazioa. **Josu Iñaki Erkoreka Gervasio** | Eusko Jaurlaritza - lehen lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburua.

09:25 - 09:45 Zuzendariak jarduera aurkeztu: **Francisco Etxeberria Gabilondo** | Kriminologiaren Euskal Institutua - Auzitegiko Medikuntzako irakaslea.

Isabel Germán Mancebo | Kriminologiaren Euskal Institutua – ikertzailea.

Jose Luis de la Cuesta Arzamendi | Kriminologiaren Euskal Institutua – zuzendaria.

09:45 - 10:45 **Krimenaren eszena eta frogak zaintzearen garrantzia**, **Patricia Martínez de Musitu Aurrekoetxea** | Ertzaintza - Polizia Zientifikoko intendente burua.

10:45 - 11:45 **Krimenaren eszenari eta bertako frogari buruzko dokumentazioa**, **Unai Lejarza Goyoaga** | Ertzaintza - Polizia Zientifikoko teknikaria, aditua lofoskopian eta begi ikuskapenean.

12:15 - 13:15 **Hondar biologikoak aztertzeko prozedura**, **Óscar García Fernández** | Ertzaintza - Ertzaina - Polizia Zientifikoaren Unitateko Auzitegiko Genetika Atala.

13:15 - 13:45 Laburpena.

15:30 - 17:00 **Jarduera praktikoa: Eszenatik laborategi kriminalistikora**, **Francisco Etxeberria Gabilondo** | Kriminologiaren Euskal Institutua - Auzitegiko Medikuntzako irakaslea.

Iñaki Irusta Onandia | Ertzaintza - Polizia Zientifikoaren Arloko burua 2021era arte.

Laura Pego Otero | Kriminologiaren Euskal Institutua – ikertzailea.

2023ko ekainak 16

09:30 - 10:30 **Aztarna lofoskopikoen prozesamendua eta oinarrizko beste operazio batzuk**, **Gorka Barbier Calderón** | Ertzaintza - Ertzaintzaren Polizia Zientifikoaren Kudeaketa Eragile eta Teknikoko komisarioa.

10:30 - 11:30 **Odola delituaren eszenan. Interpretazioa eta bilketa**, **Alberto Orgaz Jiménez** | Ertzaintza - Polizia Zientifikoaren Lofoskopia eta Begi Ikuskapenen Ataleko burua.

12:00 - 13:00 **Zaintza katea**, **Iñaki Subijana Zunzunegui** | Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia - Magistratua - Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea.

13:00 - 13:15 Laburpena.

13:15 - 13:45 Erakunde itxiera. **Andrés Zearreta Otazua** | Eusko Jaurlaritza - Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia Segurtasun Saila.

JUSTIZIA ILDO FEMINISTAN. "SOILIK BAIETZ DA BAIETZ" LEGEA

UPV/EHUK antolatzen dituen udako ikastaroen barruan, Bizkaiko Zuzenbide Fakultateko **Irene Ayala Cadiñanos** eta **Iker Ziriñ Landaluce** irakasleen zuzendaritzapean, ikastaro hau egin zen **ekainaren 26an eta 27an**, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko Legeak (eskuarki, "Soilik baietz da baietz" legea esaten zaio) izandako ondorioak aztertzeko.

2023ko ekainak 26

Elkarrizketa María Victoria Rosell Aguilarrekin: Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko Legea

- **María Victoria Rosell Aguilar** | Berdintasun Ministerioa - Genero indarkeriaren kontrako gobernu ordezkaria
- **Irantzu Varela Urrestizala** | Kazetari feminista

Mahai ingurua: **Sexu Askatasunaren Legearen argi-ilunak (Arreta integral espezializatua; sexu indarkerien prebentzioa eta detekzioa; biktimizek erreparaziorako duten eskubidea).**

- **María Naredo Molero** | Berdintasun Ministerioa - jurista eta aholkularia
- **Nerea Barjola Ramos** | Politologoa, aktibista, idazlea eta *Microfísica sexista del poder* lanaren egilea
- **Carla Vall i Duran** | Abokatua eta kriminologoa

Curso de Verano UPV/EHU – Presencial y online



Justicia
en clave
feminista IV
La Ley del "Sólo Sí es Sí"

26-27 de junio de 2023
Bizkaia Aretoa UPV/EHU
Bilbao

Logos of participating institutions: U I K, UJA KANTARRAK, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO, UPV EHU, and others.

2023ko ekainak 27

Mahai ingurua: **Identifikatutako arazoak (I): Agente juridikoen prestakuntza.**

- **Gloria Poyatos Matas** | Kanarietako Justizia Auzitegi Gorena - magistratua eta doktorea
- **Beatriz Ilardia Olangua** | Magala Abokatuak - abokatua

Mahai ingurua: **Identifikatutako arazoak (II): Onespena eta tipo penalen berrikuspena.**

- **Laia Serra i Perelló** | Abokatua eta aktibista
- **Miren Ortubay Fuentes** | UPV/EHU - Zuzenbide Penaleko irakasle erretiratua

Mahai ingurua: **Legeak zuzenbidetik harago duen eragina: komunikabideen ikuspegia, Legearekiko erresistentziak eta mugimendu feministaren ikuspegia.**

- **Maidar Galardi** | Kazetaria
- **Patricia Reguero Rios** | ElSalto - HorDago - kazetari feminista
- **Isabel Muntané Rodríguez** | Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa - kazetaria eta Komunikazioa eta Generoa Masterreko zuzendaria

Moderatzailea: **June Fernández Casete** | Kazetari feminista

Ondorioak

JUSTIZIAREN EGOERA EZBAIAN

2023ko ekainak 26
Fakultateko gradu aretoa

Ekainaren 26ko arratsaldean, jardunaldi bat egin zen UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gradu aretoan (Elkano, Bilbo), oro har gure erakundeen eta, zehazki, justiziaren egoerari buruzko elkarriketa eraikitzaile bati bide emateko.

[Irakurri artikulua osoa.](#)



Animaliak babesteko araubide juridikoa

56

Mikel Karrera Egialde, Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Zibileko irakasle titularra: "Espainiako etxeetan, askoz ere txakur gehiago daude dagoeneko, 0 eta 14 urte bitarteko haurrak baino. Datu esanguratsu horrek eta gizarte bizikidetzaren bestelako faktore batzuek bultzatuta, legegileak araubide espezifiko bat ezarri du "etxeko" animaliak (familia eremu intimokoak) babesteko; orain,

araubide hori dugu animalien ongizateari eta osasunari buruzko araudi konplexuarekin batera (elikagai ekoizpenaren eta ikerketa zientifikoaren sektore ugaritan, kontuan hartzen da araudi hori)". (...) "Betebeharrak eta erantzukizunak mugatzen dituen erregulazio berriak balio ahalko du, maila kualitatibo batean, etxekotutako animalientzat beti nahi izan den errespetuaz kontzientziazteko. Are, kuantitatiboki, ondo legoke erregulazio berriaren ondorioz etxeko animalia gutxiago egotea auzokideen erkidegoetan (elementu komunetan) eta hiriko eremu publikoetan (kaleen eta parkeen higieena). Horrela, gatazkak saihestuko dira; bereziki, herritar zaurgarrienekin (erasoak haurrei eta adinekoei)". [Irakurri artikulu osoa](#)

**Campusa 2023ko
maiatzak 25**

**AFRIKA,
ESTEREOTIPOETATIK
ETA
AURREIRITZIEATIK
HARAGO**

Martxoaren 25ean ospatzen da Afrikaren Eguna, 1963ko **maiatzaren 25ean** Afrikako estatuetako 32 buruzagi elkartu zirelako Addis Abeban, Afrikar Batasunerako Erakundea sortzeko (orain, Afrikar Batasuna du izena). Bada,

egun horren harira, **Iker Zirion Landaluce** gure fakultateko (Leioa) Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasleak kontinente horren oraingo egoera eta etorkizunera begirako espektatibak aztertu ditu. Ez da kontu samurra Afrika baikortasunez eraikitzea; izan ere, "gaurko botere harremanek, interesek eta aurreiritziekin (arrazakeria?) ez dute laguntzen Mediterraneoaren hegoaldetik datozen ekarpenak, edozein eremutakoak izanda ere, ikusgai egiten eta aitortzen (edo, gutxienez, errespetuz hartzen)". [Irakurri artikulu osoa](#)



2023ko ekainak 24

GORROTO DELITUAK

57

SER podcasta: **Iñigo Gordon Benito** gonbidatua (UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko irakaslea eta doktorego ondoko ikertzailea Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedran) gorroto delituez mintzatu da [Entzun hemen: cadenaser.com](https://entzun.hemen.cadenaser.com).



Zibergorrotoa (lineako gorrota) askotariko modu eta moldeetan agertzen da, eta, hala, inplikazio juridiko-penal desberdinak dauzka. Interneteko gorroto kanpainak sarriak izaten dira; kanpaina horietan, norbanako bat bihurtu ohi dute, denagatik edo ustez denagatik, antzeko ekintza maltzurak sistematikoki jasotzen dituen kolektibo oso baten bekatari.

Normalean, gorroto diskurtsoaren delitu zigorgarriaren bidez bideratzen dituzte jokabideok (Zigor Kodearen 510. art.), difamazio diskurtsoaren edo diskurtso iraingarriaren modalitatean. Alabaina, egokia edo/eta baliagarria izango litzateke egitate horiek berak irain delitu publikotzat jotzea, diskriminazio arrazoiengatik larrigarri orokorra gaineratuta? (Zigor Kodearen 22.4 art.). Espainiako legegileek 2015ean txertatu zuten zibergorrotoaren lehenengo adierazpen argia, adierazitako lehenengo bidean, azpiegitura teknologikoari balioa emanez (Zigor Kodearen 510.3 art.). Zuzenbide konparatu ingeles, eskoziar eta iparrirlandarrean, delitu komunaren eredu larrigarriaren alde egiten dute, sareak blaitzen dituzten komentario iraingarri ia guztiak xurgatzeko.

Gordonek bere doktorego tesian oinarritutako liburu bat argitaratu du urte hasieran: *Delitos de odio y ciberodio una revisión acerca de las posibilidades de filtrado penal del discurso a través de los arts. 22.4 y 510.3 CP*, Arg. Tirant lo Blanch, Valentzia, 2023, 903. or.



2023ko otsailak 8


VIOLENCIA POLÍTICA, DERECHOS HUMANOS E HISTORIA

Reflexiones sobre el derecho a la verdad y la Historia con especial atención a la situación en Euskadi y Navarra

Liburu horretan, bi tokitatik (zuzenbidetik eta historiatic) begiratzeko zaie Euskadin eta Nafarroan diktadura garaian –eta baita gerora ere– giza eskubideei egindako urraketa larriei: polizia indarrek edo funtzionalki boterearen zerbitzura jarduten zuten elementu partikularrek urratu zituzten eskubideok.

Oraindik orain, estatu krimenak ez dira behar beste aztertu. Giza eskubideen urraketa larrien “legatua” dira, patroik kolektiboak dauzkatenak eta demokrazia interpelatzeko dutenak. Eta, Justizia Administrazioak ez zituenek legatuok arlo penalean eraginkorki ikertu, badirudi “fede” kontua dela urraketa horiek benetan izan ote ziren eta zenbaterainoko irismena izan zuten balioestea: ematen duenez, kolore politikoaren arabera, batzuek ukatu egiten dituzte, eta beste batzuek berretsi.

2023ko martxoak 16



VÍCTIMAS INVISIBLES.
Usos y abusos de la verdad, la justicia y la reparación de las víctimas de la violencia política a la luz de la lucha antiterrorista contra ETA

Liburu horretan, ETArekin erabilerak eta abusuak aztertzen dira. Etorkizunera begira, sakon miazten dira estatuaren biktimentzako aitortza eta

egia mekanismo estrajudizialak, oinarritzat hartuta autonomia erkidegoaren legedi berria eta Memoria Demokratikoari buruzko 20/2022 Lege berriak irekitako perspektibak; halaber, 20/2022 Legearen lehen analisia egiten da. Bestetik, justizia penalaren, justizia biktimalaren eta justizia errestituzioaren arteko –nahitaezko– inplikazioak aztertzen dira, etorkizun bidezkoago bateranzko bidegurutze gisara, biktima kategoriaz desberdinen arteko asimetriak eta diskriminazioak berdintzea helburu.

Presentación y debate sobre el libro:

«Libertad, arte y cultura. Reflexiones jurídicas sobre la libertad de creación artística»

17.mayo.23 18h00

Bizkaia Aretoa (Sala Elhuyar)
Abandoibarra 3, Bilbao


María Lorenzo – Introduce y modera
Coordinadora de la Fundación Gabeiras

Roger Dedeu – Ponente
Presidente de la Fundación Gabeiras y experto en derecho de la cultura

Jesús Prieto de Pedro – Ponente
Catedrático en Derecho Administrativo y experto en derecho de la cultura

Igor Minteguia – Ponente
Profesor de Derecho Público y Ciencias Histórico-Jurídicas y del Pensamiento Político en la Universidad del País Vasco

Organiza Colabora



«Libertad, arte y cultura. Reflexiones jurídicas sobre la libertad de creación artística»

Liburuaren aurkezpena eta mahai-ingurua

23.maiatzak.17 18h00

Bizkaia Aretoa (Elhuyar aretoa)
Abandoibarra 3, Bilbo


María Lorenzo – Aurkezle eta moderatzailea
Gabeiras Fundazioaren Koordinatzailea

Roger Dedeu – Hizlaria
Gabeiras Fundazioaren Lehendakaria eta Kulturarako Eskubidean aditua

Jesús Prieto de Pedro – Hizlaria
Zuzenbide Administrazioaren Katedraduna eta Kulturarako Eskubidean aditua

Igor Minteguia – Hizlaria
Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko Juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Saileko Irakaslea

Antolatzailea Laguntzailea



2023ko maiatzak 17. 18 ordu

Bilboko Bizkaia aretoan, lana aurkeztu dute. **Libertad, arte y cultura. Reflexiones jurídicas sobre la libertad de creación artística.** Lan kolektibo horretan, besteak beste, gure fakultateko **Igor Minteguia Arregui** eta **Iñigo Gordón Benito** irakasleek hartu dute parte. Gabeiras fundazioak argitaratu du liburua, Marcial Pons argitaletxearekin. Liburuan, besteak beste, UPV/EHUko

Libertad, arte y cultura Reflexiones jurídicas sobre la libertad de creación artística

la cultivada


Igor Minteguia Arregui, Mikel Díaz Sarasola eta Iñigo Gordon Benito irakasleek hartu dute parte.

Gabeiras fundazioak argitaratu du liburua, Marcial Pons argitaletxearekin, eta, bertan, diziplina anitzetatik abiatuta, zentsuraren eta askatasun artistikoaren kontzeptuekin zerikusia daukaten gertakari batzuk jorratzen dira, duela gutxiko gertakariak horiek, eremu juridikoan eztabaida piztu dutelako eta hedabideetan inpaktu handia eragin dutelako. Aurkezpenaren ondoren, mahai ingurua egin zuten, honako hauekin:

- **Roger Dedeu**, Gabeiras fundazioko presidentea eta kulturarako eskubidean aditua.
- **Jesús Prieto de Pedro**, Administrazio Zuzenbideko katedraduna eta kulturarako eskubidean aditua.
- **María Lorenzo**, Gabeiras fundazioaren koordinatzailea.
- **Igor Minteguia Arregui**, UPV/EHUko Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko Juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Historia Saileko irakaslea eta askatasun artistikoaren mugetan aditua.

La interpretación conforme al Derecho de la Unión Europea Especial referencia al intérprete constitucional

60



Azterlanak bi zati ditu. Lehenengoan, EBko zuzenbidearen arabera interpretatzeko mekanismoa deskribatzen da, oro har eta eguneratuta, zuzenbide hori Espainiako ordenamenduan txertatu eta bertan funtzionatzeko moduekin batera. Bigarren zatiak zehatzago heltzen dio Konstituzioa Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera interpretatzeko betebeharrari; batez ere, Konstituzio Auzitegiak egiten duenean exegesi egokituia.

Zuzenbide Zibila Sarrera, Eskubide Subjektiboa eta Pertsonaren Zuzenbidea

Eskuliburu hau zabaldu eta irakurtzen hasi orduko, agian, ondorengo galdera



honek asaldatuko zaitu: "Zuzenbideko eskuliburu hau eta ondoren etorriko direnak arakaten amaitzen dudanean, zertarako balioko didate egindako lanek, pilatutako nekeek eta horretan erabilitako hainbeste orduk?"

Erantzuna ez da bakun, eta are gutxiago bakarra. Hori bai, ziur izan Zuzenbide zibileko ikasketek askeago izatera lagunduko zaituela, izan ere, askatasun zibilak, gure eskubide eta betebeharren berri izatea eskatzen du, bai eta eskubideak baliatzeko edo ukatzeko, eta betebeharroriek betetzeko edo ez

betetzeko aukera ere. Libre izateko zure eskubideak eta betebeharrak ezagutzea ezinbestekoa da. Zuzenbide Zibila ezagutzeak aberastu eta jantzi egingo zaitu pertsonen arteko harremanetan, edozein eztabaida edo arazo garatzean, eskuliburu honen bidez zeureganatutakoa erabiliko baituzu eztabaidatutako gaia behar bezala bideratzeko. Hori bai, harrokeriarik gabe eta enpatia handiz!

Zuzenbide Zibila euskaraz ikasteak zure diskurtsoa zehatza eta bidezkoa izan dadin lagunduko dizu. Maiz beste hizkuntza batzuetan irakurri eta hitz egin beharko duzu, eta sinetsi ez arren, hizkuntza desberdinen menperatzeak komunikatzeko gaitasuna ere erraztuko dizu.

Erantzunak askotarikoak izan daitezke, orain zuri dagokizu zure ibilbide akademikoan beste erantzun posible batzuk aurkitzea. Gozatu ezazu bidea!

UNIBERTSITATEKO BESTE JARDUERA BATZUK

UNIBERTSITATE AZOKAK

Otsailean eta martxoan, unibertsitate azokak egin ziren UPV/EHUren hiru campusetan. Jarduera Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak antolatzen du urtero, eta oso aukera ona da Euskal Herriko Unibertsitate Publikoak eta, jakina, gure fakultateak Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde historikoetan eskaintzen dituen graduen prestakuntza eskaintza ezagutzera emateko.

Beste behin ere, argi geratu zen gure gradu eskaintzak interesa pizten duela, jendetza hurbildu baitzen graduei buruzko informazio standetara.



Zehazki, **otsailaren 28an, Donostian**, gure fakultateko irakasle hauen laguntzari esker: **Miren Odriozola, Nicolás Alonso, Iñigo Iruretagoiena, Maite Zelaia, Laura Pego, Alberto Emparanza eta Irune Suberbiola.**



Irudian, errektorea agurtzera hurbildu zen uea.

Azkenik, **otsailaren 11n, Bizkaiko Campusean** egin zen, honako hauei esker: Alberto Emparanza dekanoa, **Sandra Castellanos, José Manuel M. Osante eta Irune Suberbiola** dekanordeak eta, campus honetako irakasle guztien izenean, **Idoia Igartua, Susana Serrano eta Ekain Payán**.

Otsailaren 4an, berriz, Gasteizen, honako hauen laguntzarekin: **Sandra Castellanos, Jose Manuel Martín Osante, Irantzu Beriain eta Aitor Orena.**



Eskerrik beroenak bidali nahi dizkiegu aipatutako guztiei, gure fakultatea haiei esker egon ahal izan zelako hiru unibertsitate azoketan.

MASTER WEEK **MASTER WEEK** **MASTER WEEK** **MASTER WEEK** **MASTER WEEK** **MASTER WEEK**

Martxoak 6-10 marzo

EHU Master Week Online

MASTER WEEK **MASTER WEEK** **MASTER WEEK** **MASTER WEEK** **MASTER WEEK**

Martxoaren 6an eta 7an, UPV/EHUK datorren ikasturterako eskaintzen dituen masterrak aurkeztu ziren, eta Zuzenbide Fakultatea ere bertan egon zen, sustatzen dituen master ofizialen berri emateko.

- **ABOKATUTZA ETA PROKURADORETZA MASTERRA.** Irune Suberbiola masterreko zuzendariak azaldu zituen master honen nondik norakoak, zeinak gaitu egiten baitu elkargoko kide egin nahi dutenek nahitaez egin behar duten estatu azterketa gainditzeko. Datorren edizioan, aldaketa bat egingo zaio hasierako proiektuari (Abokatutza Masterra), prokuradoretzako profesionalak sartu baitira kanpoko prestatzaileen artean, araudi berriak jasotzen duen moduan, bi lanbideetan aritu ahal izateko. Master honek doktorego programetarako sarbidea ere ematen du.

[Abokatutza eta Prokuradoretza Masterra - masterra - UPV/EHU](#)

[Abokatutza Masterra - masterra - UPV/EHU](#)

- **SOZIOLOGIA JURIDIKOKO NAZIOARTEKO MASTERRA / INTERNATIONAL MASTER IN SOCIOLOGY OF LAW** Joxe Ramón Bengoetxea Caballero katedraduna masterreko irakaslea eta zuzendaria da, eta berak aurkeztu zuen masterraren programa. Bada, zuzenbideak gizartean duten eginkizuna eta izan ditzakeen testuinguru kultural, politiko eta ekonomiko ugariak ulertaraztea du masterrak xede, eta konparaketan, diziplinartekotasunean eta nazioartekotasunean dago oinarrituta.

[Soziologia Juridikoko Nazioarteko Masterra - masterra - UPV/EHU](#)

- **OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA BOTERE PUBLIKOAK MASTERRA.** Iñaki Lasagabaster Herrarte katedradunak koordinatzen du urtebeteko master hau. Bada, giza eskubideen arloan sakon trebatzeko eskariari erantzute asmoz sortu zen, eta Brasilgo Ritter Dos Reis Unibertsitatearekin (UNIRITTER) titulazio bikoitza eskuratzeko aukera eskaintzen du.

[Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak Masterra - masterra - UPV/EHU](#)

ETORKIZUNeko IKASLEENTZAKO ATE IREKIAK 2023-24

65

Martxoaren 20an eta 23an, Zuzenbideko eta Kriminologiako Graduetako etorkizuneko ikasleentzako ate irekiak antolatu zituen Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak Donostian eta Leioan, hurrenez hurren. Etorkizuneko ikasle ugari bertaratu ziren, eta prestakuntza hau erakargarria dela adierazten



digu horrek.

Nabarmendu beharra dugu gure ikasleak jardueran bertan laguntzeko eta belaunaldi berrientzako gidari izateko prest agertu zirela.

DONOSTIA



LEIOA



ZUZENBIDEAN ERE, EUSKARAZ



“Zuzenbidean ere, Euskaraz!” ekimenak, euskararen arloko errektoreordearen laguntzarekin, Fakultateko IRIen eta AZPen artean euskararen erabilera sustatzea du helburu.



Horrela, abenduko eta urtarrileko asteroko topaketen bidez, *speaking café* metodoa baliatuz, euskarak Fakultatean dituen erronkak eta hari buruzko iritziak partekatzeko guneak sortu dira.

Irakasleen eta langileen arteko komunitatea sortzeaz gain, euskararen sustapenean inplementatzeko proposamenak ere jaso dira.

Aldi berean, Gipuzkoako Campusean, antzeko egitasmoa abiatu zuten irailaren 9an; oraingoz, baina, AZPko langileak bakarrik ditu xede.

Mota honetako egitasmoek aurrera egitea da asmoa, baita nahia ere, eta parte hartzaileen kopuruak gora egiten jarrai dezala.

Ahobizi
edo belarriprest
izan zaitezke:

animatu!



2021-2022KO PROMOZIOKO KARRERA AMAIERAKO EKITALDIA ZUZENBIDEKO GRADUA - LEIOA

69

Martxoaren 30ean, Zuzenbide Fakultateko Zuzenbideko Graduaren 2021-2022ko promozioko karrera amaierako ekitaldia egin zuten Bizkaian.

Bizkaia aretoko auditoriumean egin zen ekitaldia, eta **Ignacio Subijana Zunzunegui** Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko presidentea izan zen promozioko aitabitxia; halaber, **Eva Ferreira Garcia** UPV/EHUko errektoreak parte hartu zuen.

Honako hauek ordezkatu zuten Zuzenbide Fakultatea: **Alberto Emparanza Sobejano** dekanoa, **José Manuel M. Osante** koordinatzaileak, **Sandra Castellanos Cámara** dekanordeak, **Óscar Arroyuelo Suárez** administrariak eta honako irakasle hauek: **Jose Ignacio Cubero Marcos**, **Pilar Nicolás Jiménez**, **María del Río Pereda**, **Igor Mintegui Arregui**, **Ekain Payán Ellacuria**, **Miren Josune Pérez Estrada**, **M. Adoración Castro Jover**, **Esperanza Osaba García**, **Esteban Arlucea Ruiz**, **Alberto Saiz Garitaonandia** eta **Maite Uriante Ricote**.



Era berean, UPV/EHUko hainbat arduradun bertaratu ziren: **Gorka Moreno Márquez Bizkaiko** Campuseko errektoreordea, **Fernando Tapia Alberdi** Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordea, **Ana Irene del Valle Loroño** Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko dekanoa,

Fernando Plazaola Muguruza Zientzia eta Teknologia Fakultate dekanoa, **Urtza Garay Ruiz** Bilboko Hezkuntza Fakultateko dekanoa, **Jon Barrutia Guenaga** Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa, **Marta Barandiaran Galdós** Elkanoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanordea eta **Javier Cerrato Allende** Lan Harremanen Fakultateko dekanordea.

Gainera, gurekin izan genituen **Maite Morillo Quintanilla** Bizkaiko Abokatuen Elkargoko dekanordea eta **Pablo Sánchez Lamela** Jabetzaren Erregistratzaileen dekanokoa.

Ekitaldia ixteko, unibertsitateko abesbatzak kantatu zuen, eta, beti bezala, amaiera bikaina eman zien hain une hunkigarri.

Zorionak eman nahi dizkiegu Bizkaiko Fakultateko Zuzenbideko Graduaren 2021-2022ko promozioiko ikasleei.



Abad Grande, Ane
Acedo Maeztu, Lara Estela
Aguirre Rodriguez, Pablo
Alarcón Roa, Angela Andrea
Alcalde Pernia, Wendy
Alday Tapia, Xabier
Alonso Navas, June
Altzerreka Martinez, Iruri
Alvarez Martinez, Iruri
Álvaro Marques, Patricia
Amedo Joaquín, Martina
Aparicio Iriondo, Marina
Arce González, Maria
Arean Saratxaga, Jonathan
Arteta De Andrés, Javier
Badosa Lombera, Iñigo
Barria Antón, Julen
Benavente Márquez, Nuria
Ben Yahia El haddad, Nouhaila
Bilbao Lerma, Nagore
Blanco Cuesta, Aketza
Blas Llorente, Idoia
Caicedo Cruz, Melany Lizbeth
Campo Iglesias, Naroa
Cañón Gorostiza, Alemseged
Casanova Puccini, Uxue
Cenicacelaya Cayetano, Jokin
Cobo Sánchez, Juan
Diaz Pérez, Leire
Diaz Ruiz, Fernando
Eguia Vazquez, Lucia
Espinell González, Juan
Feijoo Cuadrado, Andrea
Fernández Aranaz, Begoña
Gallego Santaren, Irati
Gambra Garcia, Naia Irati
García Martínez, Unai
García Sanchez, Sara
Goicoechea Cañada, Gonzalo
Gómez Muntaner, Maria Belén
González Pérez, Maitane
González landa, Ane Miren
González de Zárata Ávalos, Ane Miren
Gostín Buenaposada, Paula
Granado Martín, Irene
Guaresti Gómez, Aines Julena
Herce Quintana, Asier
Heriz Ruiz, Naia
Hernández Morales, Maialen
Hortelano Sanchez, Jorge
Iyoha Onaifoghe, Whitney Sunny
Jaimes Páez, Margorit Vanessa
Jauregui Mata, Nekane

Jimenez Eguizabal De Luelmo, Leire
Kriukova, Irina
Lafuente Alcibar, Irati
Langa García, Diego
Larrinaga Mendia, Peio
Larraona Fernández, Álvaro
Llamazares Romero, Ylenia
Llorente Martija, Jon
López Aboitiz, Patricia
Lobato Muñoz, Maider
López Velasco, Silvia
Luzarraga Ellis, Naia
Magalhaes Pereira, Maria Madalena
Martín Docal, Aimar
Martinez Anguiana, Iratxe
Martinez Fernandez, Ane
Martínez Fernández, Irene
Mateos Fernández, Maitane
Mayordomo Saiz, Aida
Meabe Uriarte, Aritz
Miranda Sánchez, Asier
Morato Herrera, Leire
Narvaez Estebanez, Álvaro
Orive Porro, Uxue
Palacios Belza, Itsaso
Ponce Huecas, Alicia
Ramirez Llama, Adrián
Rodriguez Matilla, Lara
Rodriguez Garcia, Sara Juliana
Rojas Rodriguez, Gabriela Esther
Rousse Bengoa, Ainhoa
Sáez Caballero, Garazi
Salas García, David
Salinas Urizar, Estibaliz
San Pedro Arias, Malene
Sainz Ugarte, Ainara
Sainz Gobantes, Garazi
Sanz Melguizo, Sergio
Seara López, Sandra
Soto Crespo, David
Socas Sáez, Jaione
Tapia Larrakoetxea, Enara
Torralba Goiri, Irati
Torre Arístegui, Aitana
Torres Riego, Paula
Undabarrena Arellano, Paula
Urrutia Goiri, Ane
Val Dávila, Claudia Sofia
Valdés-Solis Fernández de Retana, Ramón José
Villanueva Cruz, Lorea
Zamacona Martín, Nerea Begoña
Zarragoitia López de Muniain, Pablo

Honako hauek eskuratu dituzte bikaintasun aipamena eta gradu amaierako lan onenen eta graduko espediente onenen sariak:

GRADUKO SARIAK



Gradu amaierako lana

Enara Tapia Larrakoetxe



Bikaintasun aipamenak

Nagore Bilbao Lerma

Naia Irati Gambra García

Diego Langa García

Leire Morato Herrera

Naroa Campo Iglesias

Ane Miren González Landa

Lucia Eguia Vazquez

David Salas García.

Enara Tapia Larrakoetxe

Graduko sari berezia (promozioko espediente onena)

Adrián Ramirez Llama



DEFENDATUTAKO DOKTOREGO-TESIAK

2023ko urtarrilak 24- Gipuzkoako Campusa.

MONICA NATALIA ACOSTA:

Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila.

"De los silencios privados a las verdades públicas: reflexiones sobre la justicia transicional y las mujeres indigentes en Colombia desde una perspectiva feminista interseccional (2005-2016)"

Zuzendariak: **José Ramón Bengoetxea Caballero** eta **Ángela Santamaría Chavarro**

EPAIMAHAI:

- Presidentea: **Gemma M^a Varona Martínez**. UPV/EHUko doktorea/ikertzailea
- 1. kidea: **Astrid Ulloa Cubillos**. Irakasle titularra - Kolonbiako Unibertsitate Nazionala.
- Idazkaria: **Felipe Gómez Isa**. Deustuko Unibertsitateko katedraduna.

2023ko otsailak 27- Gipuzkoako Campusa.

IDOIA LANDA REZA

Enpresa Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren Saila.

"El derecho a la protección de datos personales en el ámbito sanitario conectado: especial referencia a las personas mayores con discapacidad"

Zuzendaria: **Itziar Alkorta Idiakez**.

EPAIMAHAI:

- Presidentea: **Inmaculada Vivas Tesón**. Sevillako Unibertsitateko katedraduna.
- Kidea: **Simone Penasa**. Trentoko Unibertsitateko irakasle elkartua.
- Idazkaria: **Gorka Horacio Galicia Aizpurua**. UPV/EHUko katedraduna

2023ko martxoak 2- Bizkaiko Campusa

FRANCISCO DE BORJA IRIARTE

Enpresa Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren Saila.

"La eventual aplicación de los Reglamentos de la Unión Europea a los conflictos de leyes internos"

Zuzendariak: **Nerea Magallón Elosegui** eta **Unai Belintxon Martín**

EPAIMAHAI:

- Presidentea: **Juan José Álvarez Rubio**. UPV/EHUko katedraduna
- Kidea: **Guillermo Palso Moreno**. Valentziako Unibertsitateko katedraduna.
- Idazkaria: **M^a del Pilar Diago Diago**. Zaragozako Unibertsitateko katedraduna

2023ko martxoak 10- Bizkaiko Campusa

GILLERMO LAZKOZ MORATINOS.

Zuzenbide Publikoaren Saila

"Gobernanza y supervisión humana de la toma de decisiones automatizada basada en la elaboración de perfiles"

Zuzendaria: **Carlos Maria del Pilar Romeo Casabona**.

EPAIMAHAI:

- Presidentea: **Asier Urruela Mora**. Zaragozako Unibertsitateko katedraduna
- Kidea: **Andrea Perin**. Bresciako Unibertsitateko irakasle adjuntua
- Idazkaria: **Iñigo De Miguel Beriain**. UPV/EHUko itzal handiko ikertzailea

2023ko martxoak 23- Bizkaiko Campusa **MARIA CONSOLACION AIS CONDE.**

Zuzenbide Publikoaren Saila

"La responsabilidad penal de las personas jurídicas y los sistemas de gestión de cumplimiento"

Zuzendaria: **Norberto Javier De la Mata Barranco.** Zuzenbide Publikoa Saila

Epaimahaikideak:

- Presidentea: **Ana Isabel Pérez Machio.** UPV/EHUko irakasle titularra
- Kidea: **M^a del Mar Moya Fuentes.** Alacanteko Unibertsitateko irakasle titularra
- Idazkaria: **Juan Luis Fuentes Osorio.** Jaengo Unibertsitateko irakasle titularra

2023ko martxoak 30- Bizkaiko Campusa **JOSE LUIS RUIZ OSTAIKOETXEA.**

Zuzenbide Publikoaren Saila

"El desafío de un Ministerio Fiscal investigador y proactivo en la justicia restaurativa de la reforma procesal penal"

Zuzendaria: **Isusko Ordeñana Guezuraga**

EPAIMAHAIA:

Presidentea: **Juan Luis Gómez Colomer.** Castellóko Jaume I.a Unibertsitateko katedraduna

Kidea: **Silvia Barona Vilar.** Valentziako Unibertsitateko katedraduna

Idazkaria: **Iñaki Esparza Leibar.** UPV/EHUko katedraduna

2023ko maiatzak 3- Gipuzkoako Campusa. **LIDIA MARIA DURAN CAPELLÁN DE MENDEZ.**

Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila

"Fecundación asistida y ordenamiento jurídico dominicano: una aproximación a las consecuencias jurídicas en el Derecho de Familia"

Zuzendaria: Juana Goizueta Vertiz. Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila.

EPAIMAHAIA:

- Presidentea: **Francisco Javier Ezquiaga Ganuza.** UPV/EHUko katedraduna
- Kidea: **Sonia García Vázquez.** Coruñaeko Unibertsitateko irakasle titularra
- Idazkaria: **Asunción de la Iglesia Chamarro.** Nafarroako Unibertsitateko irakasle titularra

2023ko maiatzak 5- Gipuzkoako Campusa. **AMAIA BURGOS ADURIZ.**

Enpresa Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren Saila.

"El arbitraje público y obligatorio del artículo 82.3 de la ley del Estatuto de los trabajadores vs. la libertad sindical y la negociación colectiva"

Zuzendariak: **Iñaki Lasagabaster Herrarte eta Aitor Bengoetxea Alkorta.**

EPAIMAHAIA:

Presidentea: **Sofía Olarte Encabo.** Granadako Unibertsitateko katedraduna

Kidea: **Josep Ramón Fuentes i Gaso.** Rovira i Virgili Unibertsitateko irakasle titularra

Idazkaria: **Edurne Terradillos Ormaechea.** UPV/EHUko irakasle titularra

2023ko ekainak 5- Gipuzkoako Campusa.

MIREN EPELDE JUARISTI.

Enpresa Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren Saila.

"Langileen finantza-partaidetza enpresa. Eztabaida irekia"

ZUZENDARIA: **Miren Igone Alzelai Uliondo**

EPAIMAHAI A:

- . Presidentea: **Martín Larraza Kintana**. Nafarroako Unibertsitateko katedraduna
- . Kidea: **Francisco Javier Arrieta Idiakez**. Deustuko Unibertsitateko irakasle titularra
- . Idazkaria: **Miren Edurne Terradillos Ormaechea**. UPV/EHUko irakasle titularra

2023ko ekainak 9- Bizkaiko Campusa

ANDREA DE VICENTE ARIAS.

Enpresa Zuzenbidearen eta Zuzenbide Zibilaren Saila

"Características de la subcontratación laboral y efectos en la protección de los trabajadores y trabajadoras: estudio comparado de los casos de España, Colombia, Uruguay y Venezuela"

Zuzendaria: **Aitor Bengoetxea Alkorta**

EPAIMAHAI A:

- . Presidentea: **José Luis Moreno Pérez**. Granadako Unibertsitateko katedraduna
- . Kidea: **Amparo Merino Segovia**. Gaztela-Mantxako Unibertsitateko katedraduna
- . Idazkaria: **Miren Edurne Terradillos Ormaechea**. UPV/EHUko irakasle titularra

2023ko ekainak 28 Gipuzkoako Campusa.

ROBERTO LEOPOLDO CRUZ BALBUENA.

Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila.

"Freedom matters: A theoretical – practical approach to the measurement of freedom"

Zuzendaria: **José Ramón Bengoetxea Caballero**

EPAIMAHAI A:

- . Presidentea: **Esteban Anchustegui Igartua**. UPV/EHUko irakasle titularra
- . Kidea: **María Isabel Turegano Mansilla**. Gaztela-Mantxako Unibertsitateko irakasle titularra
- . Idazkaria: **Jorge Arturo Cerdio Herrán**. Mexikoko Teknologia Institutu Autonomoko irakasle titularra

2023ko uztailak 18. Bizkaiko Campusa

SANTIAGO SAÍNZ ROBLES

Zuzenbide Publikoa eta Zientzia Historiko Juridikoak eta Pentsamendu Politikoaren Historia Saila

"La fuga de los esclavos en el derecho visigodo. Estudio del Libro IX, Título I del Liber Iudiciorum".

Zuzendaria: **María Esperanza Osaba García**

EPAIMAHAI A:

- . Presidentea: **Javier Aparicio Serrano**. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko katedraduna
- . Kidea: **Remedios Morán Martín**. Urrutiko Unibertsitate Nazionaleko katedraduna.
- . Idazkaria: **Javier García Martín**. UPV/EHUko irakasle titularra

2023ko uztailak 28. Gipuzkoako Campusa

EDILBERTO MOLINA ESCOBEDO

Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila.

Zuzendariak: **Norberto J. de la Mata Barranco eta Arantza Campos Rubio.**

"Contenido y alcance de la figura de la reincidencia en Derecho Penal: uniformización de criterios para establecer la condición de reincidente en la legislación peruana". EPAIMAHAI A:

. Presidentea: **Francisco Javier Ezquiaga Ganuzas.** UPV/EHUko katedraduna

. Kidea: **María Marta González Tascón.** Oviedoko Unibertsitateko irakasle titularra

. Idazkaria: **Demelsa Benito Sánchez.** Deustuko Unibertsitateko irakasle doktore kontratatua.

2023ko irailak 28. Gipuzkoako Campusa

ALAZNE IRIGOYEN DOMÍNGUEZ

Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila.

"Feminismos, interseccionalidad y estereotipos en el derecho antidiscriminatorio. Una especial referencia al ámbito de la CAPV".

Zuzendaria: **M^a Angeles Barrère Unzueta**

EPAIMAHAI A:

. Presidentea: **Juana María Gil Ruiz.** Granadako Unibertsitateko katedraduna

. Kidea: **Alexandra Timmer, Utrechteko Unibertsitateko irakasle elkartua**

. Kidea: **Octavio Salazar Benítez.** Kordobako Unibertsitateko katedraduna

. Kidea: **María Dolores Morondo Taramundi.** Deustuko Unibertsitateko irakasle doktorea.

. Idazkaria: **Ainhoa Novo Arbona.** UPV/EHUko irakasle agregatua

PLAZAK ETA KATEDRAK

2023ko urtarrilak 10.

Donostiako Zuzenbide Fakultateko gradu aretoan, Zuzenbide Penaleko irakasle agregatuaren lanpostua emateko lehiaketa egin zen. Kodea **Miren Odriozola Gurrutxaga** irakasleari:

AGC8L1-D00160-16 plaza zenbakia. Honako hauek osatu zuten lehiaketaren Batzorde

Kalifikatzailea:

- María Milagros Acale Sánchez. Unibertsitateko katedraduna. Cadizko Unibertsitatea.
- Iñaki Esparza Leibar. Unibertsitateko katedraduna. UPV/EHU.
- Ana Isabel Pérez Machío. Unibertsitateko irakasle titularra UPV/EHU.
- Lucía Martínez Garay. Unibertsitateko irakasle titularra Valentziako Unibertsitatea.
- Isidoro Blanco Cordero. Unibertsitateko katedraduna. Alacanteko Unibertsitatea.

Gogorarazi beharra dugu 2022ko abenduan hainbat **katedra lehiaketa** egin zirela bi campusetan; zehazki:

78

- **Leioan, abenduaren 2an, José Manuel Martín Osante** irakasleak katedra eskuratu zuen Merkataritza Zuzenbidean.



- **Abenduaren 12an, Jon Mirena Landa Gorostiza** irakasleak katedra eskuratu zuen Zuzenbide Penalean.



- **2022ko abenduaren 16an, Donostian, bi katedraren lehiaketak egin ziren aldi berean; bata Zuzenbide Zibilean, zeina Gorka Galicia Aizpurua** irakasleak eskuratu baitzuen,



eta **Konstituzio Zuzenbidean** bestea, zeina **Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena** irakasleak lortu baitzuen.



2023ko martxoak 10

79

UPV/EHUK omenaldia egin zien zazpi emakumeri, berdintasunaren alde erakutsitako konpromisoagatik, Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldi instituzionalean.

Euskal Herriko Unibertsitateak ekitaldi instituzional bat egin zuen Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko areto nagusian, Donostian.

Eva Ferreira errektorea izan zen ekitaldian buru, eta unibertsitate komunitateko zazpi emakumeri egin zien omenaldia, emakumeen eskubideen defentsan egindako ibilbideagatik: Mari Luz Esteban Galarza (Arteak eta Humanitateak); Mirari Antxustegi Bengoetxea (Zientziak); Paz de Corral Gargallo (Osasun Zientziak), **Maggy Barrère Unzueta (Gizarte eta Lege Zientziak)**, Enkarni Gómez Genua (Ingeniaritza eta Arkitektura); Lourdes Arrien Marina (Administrazio eta Zerbitzuetako langilea) eta, hil ostean, Vicky Ateca Amestoy.



Bestetik, hamaika ikaslek jaso zituzten berdintasun ikuspegiarekin egindako gradu amaierako lan, master amaierako lan eta tesi onenen sariak. Gizarte eta Lege Zientzietan, honako hauek jaso zuten saria: **Enara Tapia Larrakoetxeak eta María López Moralesek.**

IKASTURTE HASIERA 2023/2024

[2023/2024 IKASTURTE HASIERA - Zuzenbide Fakultatea - UPV/EHU](#)

80

BIZKAIKO CAMPUSA

GIPUZKOAKO CAMPUSA

LEHEN MAILAKO IKASLEEI IKASTURTEA AURKEZTEA (harrera eguna):

2023ko irailak 11, 10:00etan,
Zuzenbide Fakultateko 1.2
ikasgelan

LEHEN MAILAKO IKASLEEI IKASTURTEA AURKEZTEA (harrera eguna): 2023ko irailak 11

- Kriminologiako Gradua: 10:00 - Paraninfoa
- Zuzenbideko Gradua 10:00 - B1 ikasgela
- EAZko eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza. 12:00- Gradu aretoa

1. mailako ikasleen ikasturte hasiera:
2023ko irailak 12

1. mailako ikasleen ikasturte hasiera:
2023ko irailak 12

2., 3. eta 4. mailetakoko ikasleen ikasturte hasiera:
2023ko irailak 11

2., 3. eta 4. mailetakoko ikasleen ikasturte hasiera:
2023ko irailak 11



2023ko irailak 13-BILBO

81

Abokatutza eta Prokuradoretza Masterrari hasiera emateko ekitaldia.
2023/24

**ACTO DE APERTURA DEL CURSO
ACADÉMICO 2023-2024 IKASTURTEARI
HASIERA EMATEKO EKITALDIA**
Máster en Abogacía y Procura
Abokatutza eta
Prokuradoretza Masterra

Irailak 13 de septiembre, 18:00 PM.
Salón de Grados Bilbao-Elkano Gradu Aretoa

Preside el acto Nerea Melgosa,
Consejera de Igualdad, Justicia y
Políticas Sociales.

Ekitaldiaren buru Nerea Melgosa da,
Berdintasun, Justizia eta Gizarte
Politiketako sailburua.

ABOKATUTZA ETA PROKURADORETZA UNIBERTSITATE MASTERREKO

82

I. EDIZIOA



Abokatutza eta Prokuradoretza Unibertsitate Masterreko I. Edizioa ospatu zen irailaren 13an, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean. Bertan parte hartu zuten ikasle, irakasle eta erakunde zein unibertsitate ezberdinetako agintariek. Hauen artean, aipatzekoak dira:

- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako aholkularia, **Nerea Melgosa Vega**.
- EHU/UPV-ko Bizkaiko Campuseko errektoreordea, **Gorka Moreno Márquez**.
- Bizkaiako Abokatuen Elkargoko Dekanoa, **Carlos Fuentenebro Zabalallustre**.
- Bizkaiko Auzitegietako Prokuradoreen Elkargoko Dekanoa, **Elsa Pacheco Gurpegi**.
- EHU/UPV-ko Zuzenbide Fakultateko Dekanoa, **Alberto Emparanza Sobejano**.
- Abokatutza eta Prokuradoretza Masterreko Zuzendaria, **Irene Suberbiola Garbizu**.
- Zuzenbide Fakultateko ikasleen Dekanordea, **Sandra Castellanos**.

Eskerrak eman Ekonomia eta Enpresa Fakultateari, bereziki Ataletako Batzordeko Dekanotza taldeari eta Elkano-ko AZP-ri, beti adeitasun osoz euren Bilboko instalazioetan harrera eman eta laguntzeagatik.



ZUZENBIDEAREN SOZIOLOGIAN NAZIOARTEKO MASTERRA 2023-2024

83

Irailaren 25ean eman zitzaion hasiera Zuzenbidearen Soziologian Nazioarteko Masterrari:

IISL
LSNE
IISJ

International Master's
in Sociology of Law
2023-2024 Programme

Comparative Legal Culture

25 Sep - 06 Oct, 2023


Joxerramon Bengoetxea
UPV/EHU


Iker Nabaskues
UPV/EHU

Master Coordination: master@iisj.es

 • [Other courses](#)
• [Application Form](#)

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO MASTERRA: BERDINTASUN ERAGILEAK (ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO MASTER TITULUA)

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterraren ibilbidea 1999an sortu zen, Euskal Herriko Unibertsitateko emakumezko irakasle talde batek graduondoko espezializatu bat sortzea proposatu zuenean berdintasun-eragileak prestatzeko. Hainbat diziplina akademikotatik gatoz (Zientziak, Gizarte Zientziak, Humanitateak, Zientzia Juridikoak, Osasun Zientziak, etab.), eta Unibertsitate Publikoak berdintasunean espezializatutako langileak prestatzeko erronkan lagundu ahal izateko nahiak batzen gintuen, dagoen gizarte-premiari eta -eskakizunari erantzunez. Horretarako, beste unibertsitate batzuetako pertsonekin ere harremanetan jartzen gara, baita Unibertsitatetik kanpokoekin ere, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako esparru instituzional, sozial eta profesionaletatik datozenak.



Horrela, 2001ean, Zuzenbide Fakultateko Masterraren lehen edizioa jarri zen abian, eta hasiera-hasieratik Emakunderen etengabeko laguntza izan zuen, baita beste erakunde batzuen ere (Foru Aldundiak, Udalak, Emakumearen Institutua). Orduetik gaur arte 24 urte igaro dira Masterra ematen, bi urtean behin hasieran eta urtean behin ondoren, etenik gabe, Euskal Herriko

Unibertsitateko graduondoko luzeenetakoa eta matrikula-kopuru handienetakoa izanik. Azpimarratzekoa da 700 pertsona baino gehiago igaro direla gure geletatik.

Graduondoko horrek gizarteari egiten dion ekarpen nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde esku hartzeko pertsona espezializatu eta kualifikatuak prestatzea da. Berdintasun-eragileen prestakuntzaren zeharkako ikuspegi integralaren ondorioz, pertsona horiek egindako aldaketak era askotakoak izango dira gizartean: hezkuntza, kultura, enplegua, parte-hartze soziopolitikoak, kirola, etab. Ikasleen laneratzeari dagokionez, titulua lortu duten pertsona asko Administrazioaren esparruan nahiz enpresetan kontratatu dira. Azpimarratu behar da pertsona asko lehendik berdintasun-politiken arloan lanean ari ziren profesionalak direla, eta masterrean murgildu zirela gaiari buruzko ezagutzan sakondu ahal izateko. Horren guztiaren ondorioz, gaur egun, Euskadin berdintasun-politikan lan egiten duten langile askok, sektore publikoan zein pribatuan, harreman zuzena izan dute master horrekin, eta, beraz, erreferente eztaba daezina da arlo horretan.

UPV/EHUko Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko Masterra: Berdintasun Agentek.

Tfnoa: 943-015143 <igualdad@ehu.eus>

<https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasunmaster/berdintasun-masterra>

Especialización Universitaria

Violencias Machistas: Intervención en Red

Inicio

Estructura modular

Programa

Profesorado

Prácticas

Matrícula

Ikastaro honen helburua da ikasleei indarkeria matxistak ulertzen laguntzea eta indarkeria horien inguruko ezagutza teoriko-praktikoa (jatorria, kausak, egiturak eta tipologiak) ematea, teoria feminista harturik interpretazio esparrutzat.

Hona hemen xedea:

- ✚ Jarduera profesional kontziente eta informatua bultzatzea indarkeria matxistaren adierazpen ororen prebentzioan, detekzio goiztiarrean eta lehenengo jarduketan.
- ✚ Genero ikuspegi interseksionala duen bidelaguntzarako gakoak ematea, bizirauleak suspertzeko, haien eskubideak lehengoratzeko eta biktimak erreparatzeko prozesuei laguntzeko.
- ✚ Gizonei begirako bidelaguntzarako tresnak eskuratzen laguntzea, beren burua indarkeria ezarletzat jotzen duten eta harremanetan jokabideok desagerrarazi nahi dituzten gizonek jarrera eta jokabide biolentoak goiz detektatu ditzaten eta indarkeria errepikatu ez dezaten.

ESKAINITAKO TOKIAK 30

MODALITATEA Erdipresentziala

HIZKUNTZA Gaztelania

EGUTEGIA: 2023ko urritik 2024ko ekainera

KREDITU-KOP. 30 ECTS kreditu

GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA 1.700 €

ESKOLAK EMATEKO TOKIA Zuzenbide Fakultatea (Bizkaia)

HARREMANETARAKO

zuzenbide.fak.indarkeriamatxistak@ehu.es

[946013210](tel:946013210) / [946015050](tel:946015050)

Máster Universitario

Máster en Análisis Forense

Gaur egun, erakunde juridikoeak eta lege erakundeek etengabe eskatzen dituzte metodo analitiko fidagarriak, adituaren auzitegi azterketa zehazten duten ebidentzien karakterizazioa argia izan dadin. Horren ondorioz, ezinbestekoa da profesionalak eta ikertzaileak analisi forentsearen tekniken eremuan gaitzea.

Analisi Forentseko Unibertsitate Masterrak, beraz, zientziei eta teknikei buruzko diziplina anitzeko prestakuntza eskaintzen du; izan ere, zientzia eta teknika horietan oinarritzen da ebidentzia forentseen bilaketa, analisi fisiko-kimikoaren, mikrobiologiaren, genetikaren, antropologiaren edo entomologiaren arloetan.

Ikerketaren eremuan, master honek UPV/EHUko Analisi Forentsearen doktorego programara sartzeko bidea ematen du.

ESKAINITAKO TOKIAK 20

MODALITATEA Aurrez aurrekoa

HIZKUNTZA Gaztelania

KREDITUAK 60

IRAUPENA Ikasturte bat

GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA 2.200 €

ESKOLAK EMATEKO LEKUA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zuzenbide Fakultatea

Farmazia Fakultatea

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Gipuzkoako Atala

HARREMANETARAKO Masterreko arduraduna: UNCETA ZABALLA, NORA

nora.unceta@ehu.es

Idazkaritza: secretariadealumnado.ff@ehu.es

IN MEMORIAM: JACINTO GIL RODRÍGUEZ



Abuztuak egun triste eta deitoragarri bat ekarri du Zuzenbide Zibileko arloko kideontzat. Gure Jacinto maitea, irakasle eta maisua, ezeren gainetik lagun eta kidea, joan egin zaigu isil eta bare, betirako atsedean hartzera. Bere sorterritik, Penintsulako lehen unibertsitatea sortu zen lurraldetik hain zuzen, Euskal Herriko betiereko lanbroa ezitzen lagundu zuen Cerratoko berezko eguzki-haizea ekarri zigun. Espiritu unibertsitario tradizional horrek -zorrotza eta zerbitzu publikoari emana- landu egin zuen euskal zuzenbide zibilaren burdina gogorra, berreskuratze eta modernizazio lan batean, gure nortasun kolektibo eta sozialaren funtsezko ardatzetako bat taxutu eta modelatzeko. Hain justu, gure unibertsitatearen xedea eta lema hezurmamitu zituen: 'eman ta zabal zazu'. Jacintoren funtsezko arrasto horren lekuko pribilegiatu eta oinordeko akademiko izan gara arloko kide guztiok, bai eta haren irakaspenak eta, batez ere, gizatasuna eta arreta pertsonala, famatu dituzten elkarren segidako belaunaldiak ere.

Gabriel García Cantero donostiar irakaslearen babesean ekin zion bere ibilbide akademikoari, ekintzen usufruktuaeren alderdi zibilei buruzko doktore memoria bikain batekin. 1978an Zuzenbide Fakultateari irakasle gisa atxikirik, katedradun maila lortu zuen Extremadurako Unibertsitatean lehenik, eta UPV/EHU n ondoren, 1988an. Unibertsitate publikoari eskaini zion zerbitzua agerian uzten dute egin zituen kudeaketa lan ugariak, lehenbizi Fakultateko dekanogisa eta, ondoren,

bereziki, Zuzenbide Zibila Saileko zuzendari gisa. Hala eta guztiz ere, Jacintoren jenialtasun juridikoaren eta hizkuntza zolitasunaren erakusgarri handienak agerian gelditu dira ezin konta ahala liburu, obra kolektibo eta aldizkari artikuluetan zorrotz eta ahalmen tekniko ikaragarri argitaratu duen ikerketa lan oparoan, zientzia juridikoak beti presente izango duena, zientzia juridiko zibilaren etorkizuneko ekarpenen euskarri gisa. Merezimendu handiagoa du, nolahi ere den, hamahiru dizipulu akademikoren doktore tesien zuzendaritza zientifiko zorrotzak, haietako asko bereziki lerrokatuak aipatutako gure lurraldeko Zuzenbide Zibilaren bultzadarekin.

Jacintoren tratu adeitsuak aukera eman zien lankide askori, ez soilik ingurukoei, baita Espainiako unibertsitate komunitate osokoei ere, haren konfiantzaz eta eskuzabaltasunaz baliatzeko, eta, era horretan, haren aholku adimentsu eta beti zolien bidez, etengabe galdatzen zitzaizkion ekarpen eta auzi guztiak aberasteko. Izan ere, eskatzen zitzaion guztiari erantzuten zion, haren berezko izaera zintzoari zegozkion neurritasunez eta zentzuz. Zalantzarik gabe, zurtz gelditu gara, galdu egin baitugu, lagun bat ez ezik, baita haren ahalegin zientifikoaren jarraitzaile guztiok eredu hartu beharko genukeen jokabide akademiko eredugarri bat ere.

Zure irakaspenen eta gomendioen hutsune eskerga nabarituriko dugu Fakultatearen laugarren solairuko korridorean. Zure hutsak, Jacinto, gainerakoon bizitza akademikoa luzatuko den denboran iraungo du.

Beti gogoan, agur.

Mikel Mari Karrera, Zuzenbide Zibileko Irakasle titularra